ARKO

ELKARRIZKETA: ODILE IRIART, JOSU ARKAUZEN EGOERAZ BERBETAN

# Arrasate

1997ko otsailak 24
352. zenb.










http://www.arrasate-mondragon.net.




## Arrasate Interneten




**Arrasateko Udalak webgunea zabaldu du mundura Danka Multimediaren eskutik**










IRITZIA: MAITE URANGA • KULTURA: EL FLORIDO PENSIL

IKUSPEGIA: JOSE MARI ASTIGARRAGA • 30 GALDERATAN: JOSE ANTONIO ALTUNA

**Etxe**
mobiliario y
decoracion

- PROIEKTUAK
- BARNE-DISEINUA
- OBRAK



*Finantzaketa urte batera, errekargu gabe!*

*Ferrerias, 17 (Alde Zaharra) • Tel. eta faxa: 79 03 17 • ARRASATE*

# Automobil aseguruak

## Mapfre abantailak




**Zure kotxeko aseguruaren abantailei buruzko zehaztapen guztiak emango dizkizugu.**

**Zatoz eta galdetu!!**

**MAPFRE**
MUTUALIDAD

Garibai etorbidea, 16
Tel.: 79 89 00 / 79 67 22
ARRASATE

# Nahastea eta oreka... beldurra eta ausardia

Hainbeste gauza buru-bihotzean,... gehiegi: galduta nabil, ideiak eta sentipenak zehaztu ezinik, idatzi ezinik.


Jose Mari Astigarraga

Gure Kantauri itsasoa ekaitz gogorrean, handik eta hemendik olatuak astindua, zurrunbiloak eta zarata, indar amorratuen bitsa dariola dabilela deritzot gaurko gizarteari. Barruan bizi garenok, berriz, larri sentitzen gara hainbeste tentsio eta tirabirekin. Zaila da mehatxua eta indarkeria egunero gosaldu, egiaren trukaketa eta manipulazioa orduero bizi, krispazioa, amorrua eta mendekua arnastu egunean zehar, zaila da hainbeste kutsadura artean estresik gabe, forman mantentzea.

Behar beharrezkoa da, burua argi eta garbi, bihotza orekatsu eta nortasuna zutik mantentzeko, noiz behinka eta egunero, arazo eta erasoetatik distantzia apur bat hartu, isiluneak egin eta geure barruan sartzea. Ekaitz gogorrenean ere, itsas barnea, normalean, bare dago; olatuak eta zalapartak azalean daude. Beti da on, eta gure garai hauetan beharrezko, submarinismo apur bat egitea gure nortasunaren itsasoan.

Zentzunez bere kristautasuna bizi duten fededunek 40 egun hartzen dituzte garai hauetan -Garizuma deitzen diote- submarinismo espirituala egiteko. Musulmanek ere bukatu berri dute Ramadana. Nik, neuk, zer egingo? hara garbi ditudanak:

**"Kristautasuna bizi duten fededunek, 40 egun hartzen dute garai hauetan -Garizuma- submarinismo espirituala egiteko"**

1- Gizartea astoratua eta zaila badago ere, ni neu ez nago ihes egitekotan ez pasatzekotan ere. Nire ardura jaso nahi dut eta nire nortasuna azaldu, horregatik:

2- Ez dezala inortxok espero niregandik atxekimendu osorik eta akritikorik: ez nago prest neure burua inori saltzeko, ez eta beldurrean erortzeko.

3- Horretarako, gizatasun-nortasunean indartsu eta osasunez aurkitu behar naiz. Forman egotea lortzeko, Garizuman buru-belarri sartuko naiz.

4- Ariketak: Nire buruarekin elkarrizketak eta hartueman sakonagoak eduki; bilaketan ari diren borondate oneko gizon-emakumeekin bildu erreflexioa, otoitza eta elkarrizketak egiteko.

Irakasle-sendagile: borrokalaria eta benetan askatzaile izan zen eta den Nazareteko Jesus, eta Itun Berria.

Behar bada harrituko zara artikuluak norantza jo duen ikusita; beno, ni ere apur bat. Baina ze demontre! ez gara beti, guztion ondamendirako, ideologietan eta estrategietan ibiliko gizakiaz ahazturik.

Pentsatu al duzu aspaldian, zuk zeuk, eta zeure barnetik, zeren beharrean zauden pertsona duina (burua argi, bihotza garbi eta nortasunez sendo) izateko? ■


ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Beñardo Kortabarria. **Kazetariak**: Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea**: Alberto Garro, Kaittin Allende (Tel.: 77 08 15). **Administrazioa**: Ikerne Altube (Tel.: 79 02 26) **Diseinua**: Goio Arana. **Kolaboratzaileak**: Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Uribarren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopi, Jon Ozaeta, Birginia Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barreña. **Banaketa arduraduna**: Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).
ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azala:** Goio Arana.

Arrasateko Udalaren laguntzaz

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz


## 352. zenbaki honetan

1997ko otsailaren 21ean


Asteko agenda .......**4/5**
Irakurlea idazle ...........**6**
Inkesta.......................**7**
Astearen errepasoa .....**9**
Orain eta hemen .**10/12**
Txutxumutxuak........**14/15**
Asteko gaia ........**17/19**
Kirolak jokoan.....**20/22**
Kulturaren txokoa ........**25**
Azoka plaza ........**28/29**
Lapiko handia..........**31**
Foto zaharra .............**34**

Ikuspegia
**Jose Mari Astigarraga.....................3**

Euren ikuspuntutik
**Maite Uranga ...............................8**

Hogeita hamar galderatan
**Esther Saen de la Cuesta .............30**

Aurrez aurre
**Odile Iriart...............................26/27**

Asteko gaia
**Interneten bidez,**
**Arrasate munduari zabalik ........17/19**





**http://www.arrasate-mondragon.net. da Arrasateko Udalaren webgunearen helbidea.**

## 21 ostirala

■ **ZINEA**

*2013: Rescate* Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ **MEATZ-ERREKA ELKARTEAREN BILERA OROKORRA**

Lehen deialdia arratsaldeko 7etan eta bigarrena 7.30etan. Bilera elkartean bertan egingo da.

■ **ASANBLADA**

Herri Batasunak deituta asanblada Seber Altuben arratsaldeko 7etan. Mahai Nazionaleko kideen atxiloketa eta Alternatiba Demokratikoari buruz hitz egingo da.

■ **ARRAZAKERIAREN AURKAKO GAZTE ASTEA**

Diaporama emanaldia arratsaldeko 7etan San Andresko Gazte Txokoan.

■ **ROCK KONTZERTUA KIROLDEGIAN**

Ekon, Flitter eta Su ta Gar taldeen kontzertua Musakolako kiroldegian gaueko 10etan. Prezioa: 1.000 pta. AHT kontrako taldeak antolatuta.

## 22 larunbata

■ **ZINEA**

*The Wonders* Alai Zineman 5etan, 7etan eta 9.30etan.

■ **ARRAZAKERIAREN AURKAKO GAZTE ASTEA**

Diaporama emanaldia arratsaldeko 7etan Musakolako Gazte Txokoan .

■ ***El FLORIDO PENSIL* ANTZERKIA**

Tanttaka antzerki taldearen *El Florido Pensil* antzerkia Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera: 1.000 ptakoa da, Gazte Txartelarekin 800ekoa. Arrasateko Udalak antolatuta.

■ **KONTZERTUA GAZTETXEAN**

*Hamlet* eta *Berri Txarrak* taldeen kontzertua gaueko 10etan Arrasateko Gaztetxean.

## 23 igandea

■ **ZINEA**

*The Wonders* 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ **ARRAZAKERIAREN AURKAKO JAIA**

Seber Altube plazan arratsaldeko 6etan hasita arrazakeriaren aurkako jaia.

■ ***El FLORIDO PENSIL* ANTZERKIA**

Tanttaka antzerki taldearen *El Florido Pensil* antzerkia Amaia antzokian gaueko 8etan. Sarrera: 1.000 ptakoa da, Gazte Txartelarekin 800ekoa. Arrasateko Udalak antolatuta

## 24 astelehena

■ **ZINEA**

*The Wonders* 7etan eta 9.30etan.

■ **HITZALDIA**

San Frantzisko Xabier Ikastolak antolatuta, “Zer da derrigorrezko bigarren hezkuntza?” gaiari buruzko hitzaldia arratsaldeko 6etan Ferixalekuko Ikastolan. Lehen Hezkuntza bukatzen duten ikasleen gurasoei zuzenduta.

## 25 asteartea

■ **ZINEA**

*The Wonders* 7etan eta 9.30etan.

■ **ARRASATEKO INSTITUTUKO BILERA**

Arrasateko Institutuan arratsaldeko 6.30etan bilera. Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen gurasoie zuzenduta. Gaia: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.

■ **HITZALDIA**

San Frantzisko Xabier Ikastolak antolatuta, “Zer da derrigorrezko bigarren hezkuntza?” gaiari buruzko hitzaldia arratsaldeko 6etan Ferixalekuko Ikastolan. Lehen hezkuntza bukatzen duten ikasleen gurasoei zuzenduta.

## 26 asteazkena

■ **HITZALDIA**

San Frantzisko Xabier Ikastolak antolatuta, “Zer da derrigorrezko bigarren hezkuntza?” gaiari buruzko hitzaldia arratsaldeko 6etan Ferixalekuko Ikastolan. Lehen Hezkuntza bukatzen duten ikasleen gurasoei zuzenduta.

# 27 osteguna

**■ ZINE KLUBA**

*El Globo Blanco* Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Prezioa 400 pta eta Gazte Txartelarekin 350 pta.

**■ ZINEA**

*El Funeral* 7etan eta 9.30etan.

**■ *KORRIKA* BATZORDEA**

Korrika Batzordea osatzeko bilera Monterronen arratsaldeko 7etan.

**■ SEXUALITATE HITZALDIA**

Informazio eta Orientazio Sexualeko Bulegoak antolatuta eta 3. adinekoei bereziki zuzenduta, sexualitateari buruzko hitzaldia Monterronen arratsaldeko 4.30etan. Gaiak: Analisi soziologikoa eta bizitza sexualean eragiten duten faktoreak, nagusi den eredu sexuala eta eredu horren ondorioak zahartzaroan. Hizlaria: Carlos Menendez de Miguel.

**ARGAZKI ETA DIAPOSITIBA ERAKUSKETA**

Ikarus Delta Hegoa eta Parapente taldearen 10. urteurrena dela eta, argazki eta diapositiba erakusketa antolatu dute Monterronen otsailaren 24tik 28ra arte. Ordutegia: arratsaldeko 6etatik 8ak arte

**■ GARIZUMAKO OTOITZA**

Garizuma garaiko ostegunetan San Juan Parrokian otoitzak izango dira arratsaldeko 8etan.

**■ NESKEN HIRUGARREN FUTBITO TXAPELKETA**

AEDk antolatuta aurten ere Nesken futbito txapelketa burutuko da. Izenematea martxoaren 7a baino lehen egin behar da AEDko lokalean edo 77 12 28 zenbakira deituta. Prezioa 5.000 pta. Bailarako neskek ere parte har dezakete.

**■ ESKULAN IKASTAROA**

Ekin emakume taldearen eskutik, eskulan ikastaroa asteazkenetan bi ordu desberdinetan: 3.30etan eta 6etan. Izenematea: 77 12 28 telefonoan. AEDren egoitzan emango da ikastaroa.

**■ AUTO DEFENTSA IKASTAROA**

Udaletxeko Emakume Sailak autodefentsa ikastaroa antolatu du. Ikastaroa martxoaren 4an hasi eta 20an amaituko litzateke. Ordutegia: astearteetan eta ostegunetan 5.30etatik 8ak arte. Tokia: Kiroldegia. Izena emateko 79 41 39 telefonora deitu.



**ARRAZAKERIAREN AURKAKO GAZTE ASTEAREN JAIA**

Musika eta doinu desberdinen erritmora dantza egiteko aukera izango da domekan Seber Altube plazan, bertan egingo da eta Arrazakeriaren aurkako lehen Gazte Asteari amaiera emango dion jaia. Raices gitanas taldea, Princes & Jon talde afrikarraren musika, Julio Lantiguaren Karibeko erritmoak, Erne eta Jon txalapartariak, eta Arrasateko trikitilariak izango dira aipatutako jaiean. Dena musika eta dantzan gera ez dadin, plazara hurbiltzen diren guztiendako pintxoren bat jan eta sagardo trago bat egiteko aukera izango da.

**Eguna: otsailak 23, igandea**
**Non: Seber Altube plazan**

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**Ostirala 21**
- Gauez: Español. Iturriotz.

**Larunbata 22**
- Gauez: Corcuera. Musakola

**Igandea 23**
- Gauez: Irizar. Erguin.

**Astelehena 24**
- Gauez: Amezua. Santamaina.

**Asteartea 25**
- Gauez: Ruiz. Maala.

**Asteazkena 26**
- Gauez: Morales. San Andres.

**Osteguna 27**
- Gauez: Azkoaga. Ferrerias.

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00
Igualatorioa . . . . . . . . . . . . . 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) . . . . . . . . . . . . . . 79 39 00
(emakumeak) . . . . . . . . . . . 79 44 11
Buru osasunerako zentrua . . 79 90 11

**Gurutze Gorria**
Bergara . . . . . . . . . . . . . . . . 76 55 76

**DYA**
Antzuola . . . . . . . . . . . . . . . 76 62 91

**Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak). . . . . . . 79 13 57
- Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria . . 77 03 46
- Espezialitateak . . . . . . . . 77 05 78

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 77 12 64
Oñati . . . . . . . . . . . . . . . . . . 78 08 52
Eskoriatza . . . . . . . . . . . . . . 79 98 58
Aretxabaleta . . . . . . . . . . . . 79 74 58
Aramaio . . . . . . . . . . . (945) 45 51 16

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak . . . 45 87 44

**Udaltzaingoa**
Oñati. . . . . . . . . . . . . . . . . . . 78 04 11
Bergara . . . . . . . . . . . . . . . . 76 14 69
Arrasate . . . . . . . . . . . . . . . 79 14 39
Aretxabaleta . . . . . . . . . . . . 79 10 52
Eskoriatza . . . . . . . . . . . . . . . . . 088

**Ertzaintza**
Arrasate . . . . . . . . . . . . . . . 79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea . . . . . . . . . . . . . 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) . . . . . . 79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) . . . 12 01 62
Gasa . . . . . . . . . . . . . . . 900 40 05 23
. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 79 78 44
. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 79 76 78

**Garraioak**
Taxiak . . . . . . . . . . . . . . . . . 79 12 22
PESA. . . . . . . . . . . . . . . . . . 79 14 19

**Hirugarren adinekoendako zentruak**
Iturbide Egoitza . . . . . . . . . . 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57

**Kontsumitzailearendako informazioa**
KIUB-OMIC . . . . . . . . . . . . . 79 51 55

**Monterrongo liburutegia**
Monterron. . . . . . . . . . . . . . . 77 01 05

**Irratia**
Arrasate Irratia . . . . . . . . . . . 79 58 77

## LARUNBATEAN TABERNAK ITXITA

Ohartxo honen bidez, zuzentzen ditugun tabernak aurreko larunbatean ixtea zergatik erabaki genuen azaldu nahi dizuegu.

Joxe Mari Aranzamendi elorriotar presoa kartzelan hilik aurkitu zutela eta, larunbatean, arratsaldeko 7.30etan, gertaera hori salatzeko Asanblada deitu zen eta berarekin bat egin genuen.

Ertzantzaren kristoren presentzia eta presiopean burutu ziren asanblada eta manifestaldiaren ondoren, "Katxue"ren gorpua aurkitutako egoeraren inguruan (eskuak eta hankak loturik, begiak estalirik) notizi berri eta nahasiak zabaltzen hasi zirenez, berri horiez ahalik eta modurik zehatzenean informatzeko beste asanblada bat konbokatu zen gaueko 10.30etarako. Asanblada eta ondoren egin zen manifestazioa birritan izan zen erreprimitua Ertzantzaren karga basatien bidez. Ertzainek alde zaharreko kale guztiak okupatu zituzten, kaletik zebiltzaten gazte guztiak beldurtzen eta probokatzen aritu zirelarik.

Egoera honen aurrean, aspaldi honetan Ertzantzaburu berria (Arevalo jauna) Arrasatera heldu zenetik, zoritxarrez, sarritan errepikatzen ari dena, eta Alcala-Meco kartzelan gertatutakoaren larritasuna kontuan izanik, gau horretan tabernak ez zabaltzea erabaki genuen.

Bere askatasunaren alde borrokatu eta sufritzen duen herri baten parte garela eta albo batera ezin garela geldituko duzuelakoan gaude. Geure lanpostuetatik, lanean jarraituko dugu gure herri aske izan dadin, eta berandu baino lehen, horrenbeste nahi duen bidezko bakea lortu dezan.

*Arrasateko Alde Zaharreko tabernariak*

## DITXOSOZKO ORDU EXTRAK

Mundu sindikalean, sarri, amorrua eta tristura ematen dizkiguten bi egoera kontrajarriak aurkitzen ditugu: Lan Hitzarmenetan gauza bat sinatu arren, praktikan beste bat egiten duten indar sindikalen portaera, hain zuzen ere.

Ordu extrez ari gara. Gure Elkarte Autonomoan urtero milaka ordu extra egiten dira, indar sindikal nagusienek Metaleko Komenioaren 28. artikuluan, langabeziak irauten duen bitartean ordu extrarik ez egitea gomendatzen den arren. Eta, zoritxarrez, langabezia eguneroko kontu zahar eta buru-gogorra da Euskal Herrian ere.

Datu ofizialen arabera, Euskal Elkarte Autonomoan 200.000 lagun inguru daude langabezian, hauetatik 180.000 miseria gorrian, inongo diru-laguntzarik jasotzen ez dutelako.

Txanponaren beste aldean, urtero 15-20 milioi ordu extra sartzen dira gure Elkarte Autonomoan, ordu kopuru hau 10.000 lanpostu tinko inguru sortzeko adinakoa izango litzatekeelarik.

Horrela, milaka herritarrek -batez ere emakumeek eta gazteek- lan mundurako sarrera itxita daukaten bitartean, beste batzuk, euren ongizate maila hobetzeko tentazioak eraginda, bere lan iharduera luzatzeko prest agertzen zaizkigu, sarritan kontsumismoaren eta zarraztelkeriaren besoetan eroriz. Baina, honek, nahitaez, beste herritar batzuk geroz eta pobrezia latzagoa jasan behar izatea dakar.

Ordu extren kontua ez da urrun daukagun zerbait, gure artean ere badago, Gelman bertan. Hori dela eta zera aldarrikatzen dugu:

- Ezlegezko deklaratuak izan daitezela.
- Ordu extrak sartzen dituen edonor, bere "ongizate" maila 180.000 pertsonen kaltetan lortzen dela ohar dadila.
- Enpresa Komiteko ordezkari sindikalek ordu extren aurkako jarrera tinko eta eraginkorra har dezatela:
  - Zuzendaritza presionatuz ordu hauek kendu eta bere ordez lanpostu finkoak sor ditzan. Eta paktatutako ordutegiz kanpo ezinbestekoak direnak, atseden denborarekin konpentsatuak izan daitezela, eta ez diru extra baten bidez ordainduak.
  - Ordezkari sindikalek, euren afiliatuen eta Gelmako gainontzeko langileen artean ordu extrak egitearen kontrako jarrera gogor eta serioski bultza dezatela.

Ordu extrak ugazaben harrapakeriaren adierazle dira. Ez eman zure laguntzarik.

*Pedro Mertxan, "Panpi" (Gelmako langilea eta ESKko kidea).*

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Memesa
79 42 22

# Onartzen duguna baino arrazistago gara?



**Camilo Fernandez**
**Jubilatua**
**(66 urte)**

Bai baina ni ez naiz arrazizta. Pertsona guztiok aukera eta eskubide berdinak edukitzea nahi izango nuke. Nire alabak esaten badit beltz batekin ezkondu behar dela, ez zait axola, euren bizitza da eta.



**Maria Mancebo**
**Etxekoandrea**
**(41 urte)**

Denetarik egongo da baina orokorrean zintzoak garela uste dut. Bestalde, ez zait inporta nire semea edo alaba beltz batekin ezkontzea baina momentua helduko balitz... ez dakit.



**Emilio Marmolejo**
**Langabetua**
**(21 urte)**

Bai. Arrazista gara baina ez gara konturatzen, guztioi gertatzen zaigu hori. Beti diot ez naizela arrazista baina ziur nago kasu konkreturen batean izango nintzatekeela.



**Ana Sanchez**
**Langilea**
**(28 urte)**

Bai, baina ni leiala naiz nire buruarekin eta ziur nago ez naizela arrazista. Nire semea eskolan ijitoekin edo beltzekin egongo balitz, ez litzaidake inportako, benetan diot.



**Ana Almeida**
**Langabetua**
**(26 urte)**

Bai, askoz gehiago. Uste dut jende gutxik esaten duela egia. Ni, esandakoari eusten ahalegintzen naiz eta uste dut ez nukeela arazorik izango alaba ijitoak dauden eskola batera eramaten.



**Juan Altuna**
**Langilea**
**(47 urte)**

Uste dut guztiak berez garela apur bat arrazista. Faltsukeria asko dago ez garela esatean. Pertsonalki ez nuke arazorik izango beste kultura bateko pertsonekin baina ez dut ziurtatzen.



**Mercedes Almeida**
**Langilea**
**(31 urte)**

Bai. Ni Alemanian bizi izan naiz eta han konturatu naiz jendea zein puntutaraino den arrazista, nirekin oso gaizki portatu ziren, neonaziek, adibidez, eraso egin ninduten.



**Garikoitz Dominguez**
**Ikaslea**
**(16 urte)**

Ez, ez dut uste. Ni ez naiz arrazista eta ziur nago nire klasera beste kultura bateko pertsona bat etorriko balitz ez litzaidakeela inportako.

BITTORI
ERRETEGIA
*Eguneko menua • Kartako menua*
*Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak*
Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 79 55 82

GAUR ZABALTZEN DUGU!
MUXIBAR
Erreforma eginda eta dena prest!
On egin dagizula!
Tel.: 79 11 25 ARRASATE

## USTEAK USTE

### *Greba antzua... denontzat*

**Amaitu da greba, amaitu da psikosia eta amaitu da ere errepideko bakea, kamioiak berriro jaun eta jabe.**

**Aurreko esaldia alderantziz: 1) Errepideko bakea. Lanera etortzeko azken 14 egunetan baino 5 minutu gehiago behar ditut, gainera norbait aurreratu nahiaz gero bi bider pentsatu behar, bestela edozein hanka sartzetan jango naute gurpildun erraldoi horiek. 5 minutu lehenago itzartu behar. 2) Psikosia. Ez da gasolindegietan auto ilararik ikusten; ez dira hiperrean ere, aldiko bi esne kaxa besterik ez dituztela ematen eta, familia osoak erosketak egiten ikusieko; baserrietako behiak ez dituzte erregimenean jarriko esnerik eman ez dezaten. 3) Greba. Ez dut ezer ulertzen, errepide bazterrean 14 egun pasa dituzte kamioilariek, ia ekonomia itotzeraino, gobernuarekin elkarrizketetan (antzuak izanda ere) hasita zeuden. Ematen zuen potroetatik helduta zeuzkatela... eta bapatean, ezer lortu barik bertan behera uzten dute. Horretarako, ez hastea hobe!**

**Beñardo Kortabarria**



# Euskal Herria Korrika!

**Maite Uranga**

1980an lehenbiziko edizioa burutu zenetik, asko izan da egindakoa, aurretik euskara alorrean burututako lan eskerga ere gogoan izanik, jakina. Baina, era berean egiteke dagoena ere asko dela onartu beharra dago. Euskara hizkuntza osoa da, bizitzaren esparru guztiak betetzeko gai den hizkuntza, alegia. Baina horretarako euskaldun osoak behar ditu euskarak.

Hauxe da 10. Korrikak barreiatuko duen mezua euskararen lurra den Euskal Herri osoan zehar.

Hamargarren Korrika honetan Aita Villasante eta, orokorrean, euskara urteetan zehar bizirik mantentzen lagundu duten guztiok omenduko dira. Horregatik, eta beste hainbat arrazoirengatik ere, Arantzazutik abiatuko da edizio berri hau. Martxoaren 14ean, arratsaldeko 5etan hasiera emango zaio, aurretik ekitaldi ugari izango delarik (Korrika kanta, bertsolariak, dantzariak, e.a.). Izan ere, Arantzazun gure hizkuntzaren berreskurapenaren alde egindako lana ez baitugu ahanztekoa. Alde batetik, euskararen gordeleku izan da urte luzeetan zehar. Beste aldetik, arte zein kultura alorrean ikaragarria izan delako Arantzazuk eskaini duen ekarpena. Eta azkenik, euskararen batasuna bultzatzeko bidean ere eskerga izan delako Arantzazun egindako lana. Hau guztia izango da hamargarren Korrika honek omenduko duena.

Arrasatera, Korrika martxoaren 17an etorriko zaigu, arratsaldeko 5ak aldera pasatuko da gure herritik. Dena den, Korrika etorri baino lehenago Korrika Kulturalaren barruan burutuko diren ekitaldietan parte hartzera animatzen zaituztegu.

Aurten, ostera ere, milaka lagun dantzan jartzen duen erraldoi honetan partaide izateak sortzen dituen zirrara eta emozioa sentitzeko zoria izango dugu denok, eta korrika egingo dugu, gure hizkuntza berreskuratzea presazko kontua baita. Horregatik diogu edizio honetako leloan "Euskal Herria korrika". Berriro ere, euskaldunok zein oraindik euskara egiten ez dutenek, denok batera, Euskal Herri osoa kontuan hartuko duen plangintza orokorra gure hizkuntzaren premiazko beharra dugula ozenki aldarrikatuz, urratsez urrats, gelditu gabe, Korrika euskaraz egingo dugu.

Martxoaren 23an, Bilboko kaleetan, Azken Jaiaren bukaera emango zaio aurtengo 10. Korrikari. ■

> **"Korrika egingo dugu, gure hizkuntza berreskuratzea presazko kontua baita"**

Maite Uranga, AEKko partaidea

**ERRASTI KRISTALDEGIA**
**Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak akzesorioak**
Olarte kalea, 47 behea Tel.: 79 22 55 79 14 25

HAURTXOA
Arrasate Pasealekua 4,
Tel.: 79 14 90
ARRASATE

## ostiraleko plenoaren errepasoa

### ■ HB eta EB bakarrik plenoan

Herri Batasunako eta Ezker Batuko zinegotziak bakarrik egon ziren joan den ostiraleko plenoan, eta HBko zinegotzien aldeko botoekin, onartu egin zen alderdi horrek Mahai Nazionaleko kideen espetxeratzea salatzeko aurkeztu zuen mozioa. Xabier Zubizarretak tamalgarritzat jo zuen gainontzeko lau alderdiak plenora ez joan izana eta erantzunkizun falta leporatu zien. Zubizarretaren ustez, gatazka konpontzeko aurkezten diren aukera guztiak aprobetxatu behar dira.

### ■ EBak mozio alternatiboa aurkeztu

Ezker Batuak mozio alternatiboa aurkeztu zuen Mahai Nazionalaren espetxeratzearen aurka daudela, eta talde guztiek euren ideiak plazaratzeko eskubidea dutela esanez. Bigarrenik azpimarratzen zen, gatazkaren irtenbidea elkarrizketaren bidez eta E.H.aren eskubideak errespetatuz etorriko dela. Bukatzeko, estatuari elkarrizketari heltzea eta ETAri biolentzia alde batera uztea eskatzen zion EBaren mozioak. Mozio horrek EBko bi zinegotzien aldeko botoa jaso zuen, eta HBkoak aurka azaldu ziren.

### ■ Hirukoak idatzia bidali

Plenoaren bukaeran hirukoak bidalitako idatzia irakurri zuen Udaleko idazkariak. Idatzian esaten zenez, HBk helburu politikoetarako eta nahi duenean deitzen ditu pleno bereziak, baina eurei noizbait ukatu izan zaie zerbait salatzeko asmoz plenoa deitzea. Beste talde, Mahai Nazionaleko kideen jarrera ez dutela ulertzen azaltzen zen, eta Delclaux eta Ortega Lara bahituak gogoratzen ziren. Alkateak erantzun zuen, sekula ez duela galerazi pleno berezirik deitzea.

### ■ Pleno ostean manifestazioa

Plenoa bukatutakoan manifestazioa atera zen Herriko Plazatik Demokrazia Euskal Herriarendako lemapean. Behin Maalako Errabalatik pasatu ostean Garibaiko bidea hartu zuen manifestazioak errepide guztia betez. Inguru horretan beltzez jantzitako hainbat ertzain zegoen, baina manifestariek errepide osoa hartu arren ez zuten kargatu. Garibaitik Erdiko Kalera sartu eta Herriko Plazan bukatu zen manifestazioa.



### "PORTU"RI AZKEN AGURRA BESAIDEN

Jende asko bildu zen Besaiden "Portu"ren errautsak aireratzeko egin zen ekitaldian. "Lepoan hartu eta segi aurrera" abestia kantatu ondoren, lagunek eta familiartekoek errautsak aireratu eta zuhaitz bat landatu zuten. Musika munduko hainbat aurpegi ezagun bildu zen Besaiden.



*Fagor, nahiz eta ez ibili guk nahiko genukeen errentagarritasun mailan, ez dabil galerak sortzen. Fagorrek egokitzapen garrantzitsuak egin beharra dauka, negozio ekintzen antolamendu berriak bezala. Barne egoeraren eraginez sortu ez diren eragileei aurre egiten ari gara, baizik eta ekintzen eboluzioaren eraginez sortutakoei. Prezioek agintzen duten merkatu batean gaudelako gertatzen da hori, kontsumo pribatuaren eraginez. Fagorrek kosteak merketzeko neurriak hartu behar ditu eta internazionalizazioaren aldeko apostua egin, barne merkatuaren garrantzia ez dadin hain handia izan.*

*(...) Plan estrategikoaren barruan lana sortzearen alde erabateko konpromezua daukagu, bai inguruan eta baita nazioartean ere. Horretarako derrigorrez Korporazioaren beraren interlokuzio maila jaso beharra daukagu.... Ziur gaude hemen ere enplegua sor daitekeela eta horixe erakusten ari gara".*

**ANTONIO CANCELO**
*El Mundo*
*1997-2-17*

MARKO-JARTZEAK
ALDEDI
Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

**Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta**
**Serrano Doktorea**
HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA
MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA
**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**
Ramón M. Lilí, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

# Egoitza zaharra utzi eta Uharkape inguruko berri batera pasa da ELA sindikatua

Grupo San Juanen zuen lokal zaharra utzi, eta Uharkape inguruan (Otalora 22-24) zabaldu du bulegoa ELA sindikatuak. Nahiz eta Grupo San Juanen denbora luzean ez egon, 1986tik zeuden bertan, lokala zaharra zen eta derrigorrezkoa ei zuen sindikatuak berriago bat edukitzea. Grupo San Juanen baino lehenago, beste bi tokitan eduki zituen bulegoak ELAk.

Estreinatu berri dutena lehengoa baino askoz ere handiagoa da, guztira 258 $m^2$ ditu. Egoitza berriak federazio desberdinetarako bulegoak eta harrera lekuak ditu besteak beste. Arduradunen esanetan, sindikaturaen jardueran ez da aldaketarik emango baina zerbitzu hobea eskainiko dutela uste dute. Nahiz eta inguruko herrietan bulegoak badituzten, Arrasatekoa izango da Deba Garaiko eta Beheko nagusiena.


**Gaur inauguratu behar zuten ELAren egoitza berria.**

ELAko arduradunak lokal berrian lanean hasita dauden arren, gaur, ostiralean, inaugurazio ekitaldia egin behar zen, eta bertan, ELAren arduradunek azken urteetan ihardunera ekonomikoak bailaran izan duen bilakaera azaldu behar zuten. ELAkoen esanetan, azken 15 urteetan 19 enpresa itxi eta 2.500 lanpostu galdu dira.

## Garrasi Isila eta Senideak

Asterte iluntzean Garrasi Isilak deituta kontzentrazioa egin zuen hainbat lagunek Herriko Plazan. Aurreko egunean hil zuten poliziaren heriotza gaitzestea, eta familiari elkartasuna adieraztea izan ziren kontzentrazioaren helburuak. Beti moduan borobil bat osatuz burutu zuten protesta ekintza.

Senideak elkartearen enkartelada asteartetan egiten denez, astearte iluntzean Herriko Plazara joan, eta Garraisi Isilaren kontzentrazio egiten ari zirenen aurrean burutu zuten enkartelada Senideetako kideek.

## Atun lata ugari errefuxiatu saharatarrendako

Ondo joan da atun latak biltzeko aurrera eraman den kanpaina. Arrasaten, Aretxabaletan eta Elgetan 1.200 kg atun lata jaso dira. Astelehenean, bildutako latak furgonetetan sartu eta Gasteizera, Fronte Polisarioak duen bulegora, eraman ziren. Datozen egunetan, errefuxiatuak dauden kanpamenduetara eramango dira.

Lata gehien ikastetxeetan eta supermerkatu handietan bildu dira.


Barceló Bidaiak

**LONDRES**

**Martxoak 27**- Bilbo-Londres- 9'10
**Martxoak 31**- Londres-Bilbo- 19'00
•CARLYLE HOTELA (Turista)
ostatu + gozaria
**66.400 pta.**

•ROYAL NATIONAL HOTELA (turista goi maila)
ostatu + gozaria
**71.900 pta.**

**MALLORKA**

**Martxoak 26** - Bilbo-Palma
**Martxoak 31** - Palma-Bilbo
BAHAMAS HOTELA ***
pentsio osoa
**42.900 pta.**

**Martxoak 31**- Bilbo-Palma- 18:40
**Apirilak 7**- Palma-Bilbo- 7:45
BAHAMAS HOTELA *** pentsio osoa
**37.800 pta.**

ASTE SANTUA 97

**Maalako Errabala, 33 behea • ARRASATE • Tel.: 79 70 11**

Etxez-etxeko laguntza zerbitzua

# Sindikatuen ustez adjudikazio lehiaketa gaizki egin da

CCOO, UGT, ELA eta ESKren iritziz, Udalak ez zuen subrogazioa kontuan izan etxez-etxeko zerbitzua adjudikatzeko lehiaketa deitu zuenean. Sindikatuek azaldu dutenez, subrogazioa ezarrita Goizargirekin lanean hasiko lirateke orain arte Bazainen lan egin duten langileak, eta gainera lehengo soldata berdinarekin. CCOOeko J.R. Garaik azaldu bezala Udalak gaizki egin zuen lehiaketa, eta horregatik, langileen eskubideak kontuan izango lituzkeen berri bat deitu beharko luke.

Arazoari irtenbidea aurkitu asmoz, astean lau sindikatuek bilerak izan dituzte Udaleko alderdi desberdinekin. Sindikatuen esanetan, PSOE alderdia beste lehiaketa bat deitzearen alde azaldu zen bileran baina beti ere legezkoa bada, EAk eta EAJk informe juridikoak ikusitakoan erantzungo zutela esan zuten, EBko ordezkaria borondate politikoa egonez gero subrogazioa ezartzearen alde azaldu zen eta azkenik HB, egindako adjudikazioarekin jarraitzearen alde. Bilera batean, gainera, Goizargikoak izan ziren eta zerbitzuaren adjudikazioa lortu duen enpresak jakinarazi zuen, langileen zerrenda egina dutela baina zerrendan ez dagoela Bazaingo langilerik. Era horretan, orain arteko langileak kale gorria geratuko lirateke eta.

Mobilizazioekin eta sindikatu guztiek bat eginda irtenbidea aurki daitekeela uste dute sindikatuek, baina bitartean erreklamazioa aurkeztu dute Udalean, Bazaingo langileak Udalarenak direla defendatuz. Hilabeteko epean, erreklamazio horri erantzun beharko diote Udalaren zerbitzu juridikoek, baina sindikatuek aurreratu dute tarte horretan Udalarekin negoziatzen jarraituko dutela.




**Bazaingo langileak mobilizazioetan hasi.** Astearte arratsaldean Bazaingo langileak Udaletxe aurrean bildu ziren euren lanpostuen defentsan. Langileen ustez, etxez-etxeko laguntza zerbitzuan lanean jarraitzeko eskubidea dute. Momentu horretan gaia aztertzeko bilera hasi behar zenez Udalean, langileak bilera egin behar zen tokira hurbildu ziren pankarta eta guzti.

## Ehiza eta Arrantza Elkarteari informazioa eskatu

Aurten egingo dituen ekintzen berri ematea eskatu dio Udaleko Kultura Sailak Leintzeri, ehiza eta arrantza elkarteari.

Orain dela bi urte hasi zen Leintze, Udalak San Andresen utzitako lokal bat erabiltzen baina ez du antolatutako ekintzen berri eman. Udalaren arabera, lokala erabili nahi badu ekintza batzuk antolatu behar ditu urtean zehar.

Orain dela gutxi Zuzendaritza Batzordea berritu duela jakinarazi zuen ehiza eta arrantza elkarteak, baina Udalak hori nahikoa ez dela erantzun dio.

## INEM martxoaren hasieran itzuliko

Martxoaren lehen astean INEM erakundea Arrasateko bulegoan zerbitzua eskaintzen hasiko dela espero da. Enplegu erakundeak Anbulategi aurrean, lehengo geltoki zaharrean, izango du bulegoa eta dena gertu dago ateak zabaltzeko.

Bulegoa barrutik prest egoteaz gain, kanpoan itxiera bat egin da autoek edifizioaren aurrean aparkatu ez dezaten. Itxiera hori dela eta Udalaren eta INEMen artean tira-birak egon dira eta ondorioz, asko berandutu da enplegu erakundearen itzulera. Orain dela gutxi gabonetan itzuliko zela iragarri zuen INEMek, baina ezin izan da horrela izan.

# Kamioilarien greba bukatuta, orain normaltasunera buelta

Nahiz eta Arrasaten geratuta egon diren kamioilariek adierazi zuten, gobernuak euren aldarrikapenak onartzen ez bazituen jarrera gogortuko zutela, asteazkenean greba amaitu eta errepideak kamioiekin bete dira berriz ere.

Normaltasunera bueltatu eta lantegiek ere produkzioari heldu diote berriro ere. Asteazken eguerdian Fagor garbigailuetako sailak lanari ekin zion, eta ostegunean berdina egin zuen elektratresnen sailak ere.

Grebaren eraginez sortutako ondorioak, bitartean, aregotu egin dira astean, eta joan den astean gasolindegiak erregai barik geratu baziren, azken egunetan supermerkatuetako apalak geratu dira hutsik. Oinarrizko elikagairik ez da falta izan baina dendatan igarri da grebaren eraginik.

Kamioiez ezin garraiatu eta lantegi batzuk, Fagor Ederlanek esaterako, airez egin du pieza batzuen garraioa. Frantziako Renault etxeak produkzioarekin jarraitzeko pieza batzuk derrigorrez behar zituenez, horiek helikopteroz bidali dira Eskoriatzatik. Egunotan sarri ibili da helikopteroa zeruan.



Kamioiez ezin denez, Fagor Ederlanek airez bidali ditu pieza batzuk.

## EKI ekologi taldeari erantzuna

Udalak azaldu bezala, antolatzen dituen ekintzen araberako dirulaguntza jasotzen du EKIk.

Ekologi taldeak idatzia bidali zuen Udalera, beste talde batzuekin konparatuz dirulaguntza gutxi jasotzen duela esanez. Udalak erantzun dio, laguntza ematean ez duela kontuan izaten zein taldek egiten duen eskaria, baizik eta taldeak zein eta zenbat ekintza antolatzen dituen.

## Osakidetzarekin akordioa lortu

Anbulategiko bi langileren kanporaketa zela eta, joan den ostegunean bilera izan zuten Osakidetzaren pertsonal sailak eta sindikatuek.

Bileran Osakidetzak onartu egin zuen bi langileek lanean jarraituko dutela, eta gainera, sententziak dioenari jarraituz bi langileei kontratu finkoa egingo zaie. Sindikatuek lortutako emaitzaren inguruko balorazio ona egin dute.

LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

# ARRASATEKO IKASTETXE PUBLIKOAK

## GURE ETORKIZUNA

2 urtetik hasita...




| Haur Hezkuntza (2-6 urte)<br>Lehen Hezkuntza (6-12 urte) | Ereduak: "D" eta Murgiltze |
|---|---|

**Irakaskuntza euskalduna.**

**Ingelesa haur hezkuntzatik hasita.**

**Irakaslego espezializatua**

- Musika
- Soinketa
- Ingelesa

**Entzumena eta hizkuntza.**
**Pedagogi terapeutikoa.**

**Zerbitzuak**

- Jangela
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Jolastoki egokiak

**Gurasoen partehartze zuzena.**

**Matrikula epea otsailaren 17tik 28ra arte**

Informazio gehiagorako:

San Andrés

erguin herri-eskola

MUSAKOLA HERRI ESKOLA

**S. Andres: 79 00 44** **Erguin: 79 77 74** **Musakola: 79 04 49**





## INAUGURATZEKO GOSEZ

Nor ote da amantala jantzita duen harakin elegante hori? Ez kantsatu burua... Juanjo Zabarte da, ARKOko zuzendaritza batzordeko kidea. Ez, ez pentsa egun batetik bestera harakin bihurtu denik, ARKOren lokal berriaren inagurazio egunean bakarrik aldatu zuen lanbidez eta ia arratsalde osoa pasatu zuen urdaiazpikoa ebakitzen... gero beste batzuk (argazkian ikusten den moduan) gustora jateko. Ikus daitekeen moduan, luntx ederra dastatu zuten inaugurazio ekitaldira etorritako lagunek.



## HAUEK BAI DOTORE!

**Maritxu Kajoiz jantzi ziren hainbat lagun joan den zapatuan Arrasaten. Play-back jaialdiko partehartzaileak izan ziren dotore-dotore irten zutenak, eta poteoaren ostean Leintze elkartera joan ziren afaltzera. Batek daki gaua zelan bukatu zuten, baina seguruenik datorren urteko jaialdirako ideiak bururatuko zitzaizkien zapatu gauean.**



## ZENBAT KOPA BAKOITZAK?

*Argazkian garbi geratzen da zeintzuk irabazi dituzten Santamainako Toki Argi jubilatu etxean jokatutako mus, tute, briska eta domino txapelketak.*
*Bikote bakoitzak (Jeronimo Moreno, Jaime Nieto eta Faustino Hernandez Tomas Garcia) bina txapelketa irabazi zituzten eta horrela bakoitza bi kopekin etxeratu zen.*
*Erraz irabazi bai, baina orain nahikoa lan izango dute kopak distiratsu uzten! Eurek garbituko ote dituzte?*



# UMEZAINTZAKO HAURRAK... ... GARRAIOETAN ADITUAK

**Nortzuk dira gaztetxo hauek? Umezaintzako 3 urteko haurrak dira otsailaren 6an egin zuten bidaian. Umetxoak garraioen gaia lantzen ari direnez, Zumaiaraino autobusez joan ziren, handik Oriora trenez, Orion itsasontziak ikusi eta arratsaldean Txiki Parkera joan ziren jolastera. Andereñoek esan digutenez, primeran pasatu zuten... argazkia ikusi baino ez dago!**



## VOLVO KOTXEA IRABAZI

Timotea Beitia Irasuegi 60 urteko emakume arrasatearrak, BBV banketxeak otsailean zehar egunero zozketatzen duen hiru Volvoetako bat irabazi du. Timoteak ez du autoa gidatzeko karnetik, beraz, oraindik ez daki zer egingo duen Volvoarekin. Jakin ere ez daki oso zihur kotxea noiz emango dioten baina hori bai, pozez hartu du oparia.

## IZENA

**Felix Gordejuela**



arrasatearra izango da Leintze elkarteko lehendakari berria. Lenitz Bailarako Ehiza eta Arrantza Elkarteko lehendakari berriak 50 urte ditu. Arrantzako ordezkaria, berriz, Ramon Ramila izango da eta tiroko ordezkaria J.M. Mancisidor.

## DATA

**1977-2-19**

Seber Altuberi eskainitako plaza inauguratu zen. Arratsaldeko 6etan jendez beteta zegoen plaza, eta bertan Gernikako Arbolaren 81. kimua landatu zen, Seberren bizitzan hain garrantzitsuak izan ziren bi herri elkar-lotuz: Gernika eta Arrasate.

## ZENBAKIA

**%1,9**

da egunkarietako herriko kroniketan euskaraz egiten denaren portzentaia; elebidunez, berriz, %27,50, eta erdaraz %70,60. Egunkariak kontuan hartuz, aipatzekoa da Correon euskaraz ez dela ezer egiten, Diario Vascon %4,9, eta Eginen %32,6.

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko erropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

BAKAILOETXEA
• Bakailoa eta beroni buruzko produktuak
• ISLANDIAko bakailoan espezializatua
• Bakailo kazoletak prestatzen dira (bakailo gatzgabetua daukagu)
Mondragonés kalea, 7 (Azoka Plaza onduan) • Tel. 79 93 07

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 79 91 84
ARETXABALETA

# El Florido Pensil



ANTZERKIA

Amaia antzokia

Otsailak 22 LARUNBATA, gaueko 22.30etan • Euskaraz

Otsailak 23, IGANDEA, gaueko 20.00etan • Erdaraz

Sarrerak: 1.000 pta. (Gazte Txartelarekin: 800 pta)

ARRASATEKO UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundia



Dankako lantaldea asko hazi da. Gaur egun zortzi lagun ari dira lanean eta datorren urterako hamabi izatea espero dute.

# Interneten bidez Arrasate munduari zabalik



**Arrasatek badu bere txokoa Interneten. Danka enpresa arrasatearrak herriari buruzko webgunea (Arrasateri buruzko informazioa duen orria) sartu du Interneten, eta dena gertu dago orri hori munduari birak ematen hasteko.**

**Momentuz, Arrasateri buruzko informazioa jaso nahi duten atzerritarrei begira prestatu da web orria, baina hemendik urte gutxira Interneten bidez bideratuko ei dira Udalaren eta herritarren arteko harremanak. Gustatu ala ez, ordenagailua familiako beste bat gehiago izango da etxean.**

Danka multimedia enpresan jaio zen Arrasate Interneten sartzeko ideia. Urrian Maritxu Kajoiri buruzko orria sartu zuten Interneten, eta Dankakoak harrituta geratu ziren jende askok orri horrekin bat egin zuela ikustean. "Badirudi jendeak Arrasateri buruzko informazioa nahi duela"- pentsatu zuten Dankakoek, eta horrela, herriari buruzko hainbat datu emango zukeen webgunea egitea bururatu zitzaien.

Ideia horrekin jo zuten herriko alkatearengana, eta

Xabier Zubizarretak Arrasate Interneten sartzeko orria prestatzen hasteko baimena eman zien. Alkateak azaldu bezala interesgarria iruditu zitzaion Dankakoen ideia. “Internet mundura zabaltzeko ate bat da eta era berean mezuak jasotzeko aukera ematen du” dio alkateak.

Arrasatekoa da herri batendako Dankakoek egin duten lehenengo webgunea, baina emaitza onak emango dituela eta beste herri batzuk ere berdina egitera animatuko direla espero dute.

## ZELAN AURKITU

Internet zer den ez dakizulako ez zaitez erreportaia irakurri barik geratu. Azalpen motz bat Internet zer den argi ez duzuenondako: posta zerbitzu bat da, baina elektronikoa, ordenagailu bidez egiten dena. Posta bidez eskutitz bat bidaltzen den moduan, ordenagailuan mezua idatzi eta Internet bidez ordenagailu batetik bestera bidal daiteke. Beraz, postaria Internet sarea litzateke.

Hori bai, helbideak derrigorrezkoak dira sistema honetan ere eta gaur hizpide denaren, Arrasateko Udalarena, honako hau da: www. arrasate-mondragon. net. Pentsa ezazue Japongo pertsona batek Arrasatera etorri behar eta herriari buruzko informazioa jaso nahi duela. Ordenagailuan helbide hori tekleatu, eta Arrasateren informazioa duen webgunea aterako zaio.

Helbidea ezagutzen ez
















**Arrasatekoa da herri batendako Dankakoek egin duten lehenengo webgunea, baina emaitza onak emango dituela eta beste herri batzuk ere berdina egitera animatuko direla uste dute.**

**Web orria batez ere atzerriko edo estatuko jendeari zuzenduta dago, baina gutxi barru Udala eta herritarrak Interneten bidez komunikatuko ei dira.**

dutenendako, hala ere, bada beste modu errazagorik: hitz jakin batzuk tekleatzea. Erreportaia idazterako orduan Udalak zehaztu barik zuen zein hitzekin aurkituko den webgunea, baina ideia bat egiteko gutxi gorabehera Arrasate, Mondragon, MCC... bezalako hitzak aukeratuko dira.

Bi bide beraz, Arrasateko web orria aurkitu nahi dutenendako, baina behin bat eginda zer aurki daiteke bertan?

## ZER AURKI DAITEKEEN

Arrasateri buruzko web orri dotorea eta erakargarria prestatu dute Dankakoek. Argazki, mapa eta musikarekin lagunduta gainera!

Webgunean sartu bezain laster Arrasateko himnoa entzungai eta lau dragoi informazioa lau hizkuntzatan jaso daitekeela adieraziz: euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez. Behin hizkuntzaren aukera egindakoan menu desberdinak: kokaleku geografikoa, biztanleria, jarduera ekonomikoa, hezkuntza, jaiak eta tradizioak, herriko gobernua, ekipamenduak eta zerbitzuak, ohar historikoa, artea, turismoa, helbide interesgarriak eta bibliografia. Horrela, bata edo bestea zapalduz, aukeratu den gaiaren inguruko informazioa ateratzen da.

Arrasateko webgunean, gainera, saltoak emateko aukera dago, hau da, jarduera ekonomikoan, esaterako, MCC aipatzen da baina Korporazioak ere bere gunea duenez Interneten, zuzenean bertara jotzeko aukera eskaintzen da.

Orokorrean esanda horixe da Arrasateri buruz Interneten aurki daitekeena, zehatzmehatz ikusteko berriz badakizue zein helbidetara jo.

## INTERNET NONAHI

Dankakoek egin duten web

orria batez ere atzerriko edo estatuko jendeari zuzenduta dago, baina urte gutxi barru Udala eta herritarrak Interneten bidez komunikatuko ei dira. Askori zientzia fikziozko zerbait irudituko zaizue, baina Dankakoek egun hori oso gertu ikusten dute. Gustavo Carrerok, Dankako lankideak, azaldu bezala "orain dela urtebete Internet oso gutxi ezagutzen zen baina urte baten izugarrizko oihartzuna lortu du. Interneten aukerak anitzak dira, eta uste duguna baino lehenago Udalak Internet bidez helaraziko die informazioa herritarrei. Besteak beste, antolatuta dauden ekintzen berri, guardiako farmazien zerrenda, edo instalazio desberdinen tarifak eta ordutegiak eskainiko zaizkie herritarrei sare elektronikoaren bidez. Badakigu urte gutxi barru etxe guztietako ordenagailuak ez direla Interneten konektatuta egongo, baina lantokietakoak bai. Gure ustez horixe litzateke Arrasateko Udalak eman beharko lukeen hurrengo pausoa".




Hori ei da etorkizun hurbilean emango den jauzia, baina lehendabizi Udala Internetera konektatutako da mezuak ere jaso ahal izateko. Herriko alkateak azaldu bezala horretako asmoa badago eta laster Internet sarean konektatuko dute Udaletxea. Oraindik hala ere erabaki barik dute Interneteko zein zerbitzu datorkion ondo Udalari. ■

**Maria Agirre**

# Danka, gorputza hartuz doan multimedia enpresa

Orain dela bi urte hasi zen Danka enpresa lehen pausuak ematen. Bi arrasatear, Mikel Lizarralde eta Gustavo Carrero, multimedia alorrean aukera zegoela ikusi eta Saiolanen proiektua garatzen hasi ziren.

Bi urte beranduago, bi arrasatearrek asmatu egin zutela esan daiteke. Gaur egun zortzi lagun ari dira Dankan lanean, eta datorren urterako hamabi bat izango direla uste dute. Injenieruek, informatikoek, diseinatzaileek eta programadoreek osatzen dute Dankaren lantaldea besteak beste.

Hasiera batean CD-Rom deritzon alorrean hasi ziren lanean, baina iaz Internet zerbitzua eskaintzen hasi eta ordutik negozio horrek hartu ei du aurrea. Hala ere, CD-Rom-ean egin dituzten lanek ekarri diete beharbada orain arteko poztasun handienak. 95ean Sasietako Mankomunitatearen eskariz ikasleei zuzendutako birziklapen gida atera zuten disketean, eta proiektu horrek orduko Biotsu saria irabazi zuen. Bestalde, Fagor Automotion kooperatibarendako egindako katalogoak ere harrera oso ona izan du. Mikel Lizarralderen ustez, katalogo bat CD-Rom-ean egitea paperean egitea baino merkeagoa ateratzen da. "Gainera, aldaketaren bat egin behar bada CD-Rom-ean zuzenean alda daiteke, baina paperean konplikatuagoa eta garestiagoa da".



Saiolanen seaskan jaiotako enpresa gorputza hartuz eta handituz doa, baina orain tokia arazo bihurtu zaie Dankakoei. Arrasaten zabalduko den Enpresa eta Berrikuntza Zentroan toki handiagoa izango dute, baina zentroaren irekiera berandutzen ari da eta Dankakoei ezinegona areagotzen ari zaie. Gaur egun langileek ia-ia elkarren gainean egiten dute lan, eta egoera horrek gehiago haztea oztopatzen diela uste dute. Ez dadila toki faltagatik izan!

*Urbina Maltzagako 2. entrenatzailea*

# IÑAKI GONZALEZ

## *"Nire helburua ez da lehen entrenatzailea izatea"*

**— Zein betebehar dauka bigarren entrenatzaileak?**
— Entrenamenduak eramaten lagundu, entrenatzaileari ideia berriak edo aholko batzuk eman eta horrez gain, partidu eta entrenamendu guztietara joan.

**— Zure helburua lehen entrenatzaile izatea da?**
— Ez dut horrelako helbururik. Urbina Maltzagako ordezkariek proposatu zidaten eta onartu egin nuen, batez ere zer moduzko esperientzia zen jakiteko. Aurretik talde gazteak entrenatu ditut eta aldaketa handia izan da. Esperientzia moduan aberatsa izan da, asko ikasi dut baina gogorra ere bada.

**— Entrenatzailea kanpokoa izatea nola ikusten duzu?**
— Herrian horretarako pertsona egokiak ez badaude ondo ikusten dut. Hala ere, entrenatzailea eta jokalariak etxekoak izatea denoi gustatuko litzaiguke.

**— Nolakoa da German Monge?**
— Saskibaloi maitale hutsa.

**— Jarraituko zenuke bigarren entrenatzaile?**
— Orain ezetz esaten dut baina beharbada irailean eskainiz gero, beste iritzi bat izango nuke. Saskibaloiak denbora asko kentzen dit eta lana izateaz gain seme txikia ere badut.



## ESKUBALOIA
### Azkenean garaipena

Arrasatek Zarautzen kontra garaipen garrantzitsua lortu zuen zapatuan. Garrantzitsua puntuak etxean gertatu zirelako eta derbi batean irabaztea beti atsegina delako. Baina lortutako bi puntuak ez ziren nahikoak izan sailkapeneko azken tokia uzteko. Hori dela eta, datorren domekan Ibon Alzelairen mutilak Beti Onak taldearen kontra emaitza errepikatzen saiatu beharko dira. Partidua domekan eguerdiko 12etan jokatuko da Atarrabian

## SASKIBALOIA
### Urbina Maltzaga Kataluniara

Urbina Maltzagak Kataluniako C.B Valls taldearen kontra neurtuko ditu indarrak domekan arratsaldeko 6.30etan Tarragonan. Arrasateko taldea 24 punturekin sailkapeneko 13. tokian dago. Valls berriz 30 punturen jabe da eta bostgarren tokian dago sailkapen nagusian. Norgehiagoka horretarako German Monge entrenatzaileak jokalari guztiak gertu izango ditu.

## RUGBYA
### Arrasate eta liderra aurrez aurre

Arrasateko rugby taldeak Hernaniren kontra jasotako jipoia ahazteko ez du arerioa samurra izango zapatuan. Eibar liderra bisitari etorriko da Garagartzara eta neurketa arratsaldeko 4etan hasiko da. Patxi Gorosabel entrenatzaileak ez dio beldurrik lehen sailkatuari eta garaipena lor daitekela uste du.

## FUTBOLA
### Legazpian eta Nafarroan neurketak

Preferente mailako Mondra eta Legazpiko Ilintxa nor baino nor izango dira domekan arratsaldeko 4etan Bikuña futbol zelaian. Sailkapenari begira, Mondrak ez luke arazorik izan behar aurkaria gainditzeko. Arrasateko taldea 3. tokian dagoen bitartean Ilintxa 16.a da. Jesus Mari Barrutiabengoa entrenatzaileak bestalde, nahi baino arazo gehiago izango du hamaikakoa osatzeko. Une honetan Calleja, Beñat, Leiba, Luengo eta Areitio lesionatuta daude. Partidu bateko zigorraz Golo, Matalobos eta Zulueta.

Emakumeei dagokienez, Nafarroako Lagunak taldea izango dute aurrean domekan eguerdiko 12etan. Lagunak sailkapeneko goialdean dago kokatuta, Mondra 7. ean. Neurketa lehiatsua eta bizia izan daiteke.

## TXIRRINDULARITZA
### Dorletako Amaren aurkezpena

Dorletako Ama Txirrindulari eskolak 1997ko denboraldiko aurkezpena egingo du zapatuan Gatzagan. Goizeko 10.30etan Dorletako Santutegian Amabirjinari lore eskaintza egingo diote txirrindulariek. 11.30etan Gure Ametsa jatetxean taldeen eta babesleen aurkezpena egingo da eta 12ak aldera luntxa.



Ikarus taldekoek hainbat eta hainbat ekintza antolatuko dituzte aurten.

# Ikarus taldea 10. urteurrenean murgilduta

Ikarus Delta Hegoa eta Parapente taldeak 10 urte bete ditu aurten. Ospakizun horri zentzu berezia emateko taldeko kideek hainbat ekintza antolatu dute datozen hilabeteetan burutzeko. Datorren astelehenetik ostirala arte diapositiba eta argazki erakusketa egongo da ikusgai Monterrongo aretoan. Gazte hauek euren jauzietan ateratako argazki erakargarrienak ikusteko aukera egongo da arratsaldeko 6etatik 8ak arte. Martxoaren 2an berriz, Arrasateko taldetik igaro diren lagunek Kurtzebarrin izango dute zita salto egiteko. Ondoren guztiek argazki ofiziala atera eta bazkaria izango dute. Maiatzean urteroko ohiturari eutsiz, Urkuluko kontzentrazioa antolatuko da. Topaketa horrek beste urteetan baino indar gehiago izatea espero dutenez, antolatzaileek berrikuntzak egongo direla iragarri dute. Horrez gain, baliteke urtean zehar beste ekintza mota batzuk antolatzea, hala nola, kontzentrazioetara joateko irteerak edo hitzaldiren bat.

### TALDEAREN SORRERA

Ikarus taldea Arrasateko bost lagunek osatu zuten 1987an. Juan Luis Etxebarria, Jesus Zuazubiskar, Jose Antonio Talledo, Mirian Beltran de Heredia eta Jesus Nafarrate izan ziren sortzaileak. Hasieran Delta Hegoa talde moduan osatu zen baina bi urteko epean Parapente zaleei zabaldu zitzaizkien ateak. Gaur egun 30 lagun ditu Ikarusek eta horietatik 20 bat federatuak dira. Datu moduan aipatu behar, federatuetatik bi Delta Hegokoak direla, eta gainontzekoak Parapentekoak. Delta Hegoen artean txapelketetan parte hartzen duen lagun bakarra Carlos Conde da.

### JENDE GAZTEA FALTA

Ikarus taldekoentzat onak izan dira azken hamar urteak. Hala ere, jende gaztearen presentzia botatzen dute faltan "azken urteetan ez da aurpegi berririk etorri eta taldeak bizi irauteko jende gaztea behar du". Ikarusekoek garbi utzi nahi dute animatzen den jende gazteari laguntza guztia emateko gertu daudela. Lokalean material ugari dute hasi berriei uzteko, beraz, hori ez litzateke arazo bat izango. Horrez gain, kirol hori edonork egin dezakeela diote adituek, ikasteko gogoa eta abentura gustatzea lirateke bete beharreko baldintzak. Ikarus Elkarteko ateak zabalik daude orain jendea animatzea falta da.

## Karatekak beti bezala bikain

Saioa karate taldeko bost karateka Usurbilen burututako senior mailako Gipuzkoako txapelketan izan dira. Erik Martin, Iker Zabarte, Angel Lazkano, Tamara Martinez eta Idoia Aranburuzabala karatekek emaitza bikainak lortu dituzte. 70 kilo azpiko pisuan Erik Martinek urrezko domina lortu zuen eta Angel Alonso hirugarren tokian geratu zen. Emakumeen artean, Tamara Martinezek eta Idoia Aranburuzabalak bigarren eta hirugarren postuak eskuratu zituzten 70 kilo azpiko pisuan. Horrelako emaitzak lortuta Iñaki Muñoz entrenatzaileak badu pozik egoteko arrazoirik eta gaur arte moduan ikasleekin gogor lanean jarraitzeko asmoa duela aitortu du.

## Sorospen eta medikuntza ikastaroa

Euskal Mendizale Elkarteak eta Leintz bailarako mendi elkarteek mendi sorospen eta medikuntza ikastaroa prestatu dute apirilean emateko. Irakasleak Euskal Mendizale Federazioko medikua eta zuzendari teknikoak izango dira. Ikastaroa egun hauetan emango da: apirilak 7, 9, 14, 16, 17, 21, 23, 24, 28 eta 29an arratsaldeko 7.30etatik 9.30etara Monterrongo Kultur Etxean. Interesatuok Besaideren egoitzara zuzendu otsailak 18-19, 25-26 eta martxoak 4 eta 5ean, arratsaldeko 7.30etatik 8.30ak arte. Prezioari dagokionez, federatuek 3.000 pezeta ordaindu beharko dute eta ez direnek 4.000 pezeta.

## Sailkapenak

### A taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| Irati STS | 18 | 16 | 1 | 1 | 104 | 33 | **33** |
| Betrayer | 18 | 15 | 0 | 3 | 106 | 41 | **30** |
| Lorategi Potroak | 18 | 13 | 3 | 2 | 64 | 36 | **29** |
| Arrogoi Taberna | 18 | 14 | 0 | 4 | 72 | 56 | **28** |
| Aurrera Bolie | 18 | 12 | 2 | 4 | 93 | 58 | **26** |
| Totem | 18 | 11 | 2 | 5 | 98 | 47 | **24** |
| Galartza Konten | 18 | 11 | 2 | 5 | 84 | 52 | **24** |
| Pipwhis | 18 | 10 | 2 | 6 | 71 | 54 | **22** |
| DKB | 18 | 8 | 5 | 5 | 57 | 47 | **21** |
| Oñaniereng | 18 | 9 | 2 | 7 | 52 | 64 | **20** |
| Abinagraus | 18 | 8 | 2 | 8 | 78 | 56 | **18** |
| Ojo Avisore | 18 | 8 | 2 | 8 | 81 | 68 | **18** |
| Berango sukald.18 | 7 | 3 | 8 | 72 | 71 | | **17** |
| Me la Pela | 18 | 7 | 2 | 9 | 64 | 58 | **16** |
| Baneuko | 18 | 7 | 2 | 9 | 41 | 49 | **16** |
| Leya | 18 | 6 | 1 | 11 | 58 | 83 | **13** |
| Potrosorri | 18 | 6 | 1 | 11 | 53 | 81 | **13** |
| Viboras | 18 | 4 | 2 | 12 | 66 | 92 | **10** |
| Alai gozokiak | 18 | 2 | 5 | 11 | 32 | 93 | **9** |
| Kriskibalda | 18 | 2 | 3 | 13 | 34 | 75 | **7** |
| Etxe Mobel | 18 | 1 | 0 | 17 | 18 | 149 | **2** |
| Kaxi Ganamos | 18 | 0 | 0 | 18 | 3 | 38 | **0** |

### B taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| Naranja Mekan. | 18 | 16 | 0 | 2 | 132 | 43 | **32** |
| Okoretegi | 18 | 14 | 3 | 1 | 88 | 30 | **31** |
| Cerve Leintz | 18 | 13 | 3 | 2 | 105 | 36 | **29** |
| Insert Coin | 18 | 11 | 2 | 5 | 82 | 46 | **24** |
| Ke Oxtias | 18 | 10 | 4 | 4 | 66 | 49 | **24** |
| Jotakabau | 18 | 10 | 4 | 4 | 59 | 62 | **24** |
| Diego Antonio | 18 | 11 | 0 | 7 | 98 | 67 | **22** |
| Los Innombra. | 18 | 8 | 6 | 4 | 79 | 65 | **22** |
| Argi Ibili | 18 | 10 | 0 | 8 | 94 | 34 | **20** |
| Pepelus | 18 | 8 | 4 | 6 | 78 | 63 | **20** |
| Fosforos | 17 | 8 | 2 | 7 | 76 | 74 | **18** |
| Los Heredia | 18 | 8 | 2 | 8 | 68 | 69 | **18** |
| Motz | 18 | 7 | 4 | 7 | 61 | 77 | **18** |
| ZZPPW7 | 18 | 6 | 5 | 7 | 82 | 83 | **17** |
| Sobredosis | 18 | 7 | 2 | 9 | 67 | 77 | **16** |
| Perrahotsa | 18 | 6 | 3 | 9 | 46 | 61 | **15** |
| La mosca Gao | 18 | 5 | 4 | 9 | 90 | 99 | **14** |
| Gualtrapas | 18 | 5 | 1 | 12 | 52 | 96 | **11** |
| Kinder Konpresa | 17 | 3 | 1 | 13 | 47 | 100 | **7** |
| Ganbelas | 18 | 3 | 0 | 15 | 50 | 90 | **6** |
| Elisabeth | 18 | 1 | 3 | 14 | 43 | 145 | **5** |
| Hapoel Jamon | 18 | 0 | 1 | 17 | 35 | 133 | **1** |

### D taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irabaz | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| Sortu Informatika | 18 | 14 | 2 | 2 | 95 | 40 | **30** |
| Txeyenex | 18 | 12 | 4 | 2 | 79 | 43 | **28** |
| Nuevo Taberna | 18 | 11 | 4 | 3 | 106 | 53 | **26** |
| MSM Ing Integral | 18 | 13 | 0 | 5 | 78 | 54 | **26** |
| Sokoakoak | 18 | 12 | 1 | 5 | 98 | 62 | **25** |
| Orlando Piratas | 18 | 11 | 2 | 5 | 79 | 69 | **24** |
| Bedarreta Tab.18 | 11 | 1 | 6 | 66 | 46 | | **23** |
| Adelaida | 18 | 10 | 1 | 7 | 78 | 65 | **21** |
| KK Jaurlaritzari | 18 | 10 | 1 | 7 | 66 | 70 | **21** |
| Ac Surcos | 18 | 9 | 2 | 7 | 121 | 69 | **20** |
| Koka Juniors | 18 | 8 | 3 | 7 | 73 | 68 | **19** |
| Danok Lagun | 18 | 8 | 3 | 7 | 57 | 63 | **19** |
| Los Dimy | 18 | 9 | 1 | 8 | 65 | 73 | **19** |
| Lautherbrunen | 18 | 8 | 0 | 10 | 50 | 83 | **16** |
| Hirei | 18 | 7 | 1 | 10 | 49 | 78 | **15** |
| Cartonajes Igamo | 18 | 6 | 2 | 10 | 48 | 59 | **14** |
| Bukanak | 18 | 6 | 0 | 12 | 55 | 81 | **12** |
| Tronkoteak | 18 | 6 | 0 | 12 | 34 | 87 | **12** |
| Borock Roll | 18 | 5 | 1 | 12 | 83 | 87 | **11** |
| Anbotoste | 18 | 4 | 0 | 14 | 32 | 57 | **8** |
| Rotor de Bol. | 18 | 1 | 2 | 15 | 7 | 50 | **4** |
| Iluna Taberna | 18 | 1 | 1 | 16 | 31 | 93 | **3** |

## Laburrak

**■ Zigortua eta kanporatua**

Borrock´n Roll taldeari bi puntu kendu dizkiote epaitzera aurkeztu.ez zelako. Bestalde Bukanak txapelketatik kanpo geratu den bederatzigarren taldea da. Hauek ere ez ziren Sokoakoak taldearen aurkako partidura azaldu. Txapelketatik kanpo honako taldeak daude: Bukanak, Argi Ibili, Pipwhis, Iluna Taberna, Rotor de Bolbogrado, Kaxi Ganamos, Anbotoste, Kriskibalda eta Tronkoteak.

**■ Bizi bizi 19. ihardunaldia**

Astebuetarako lau partidu gomendatuko ditugu. Okoretegi - Jotakabauen artekoa, Lorategi- Totem, Insert Coin- Los Heredia eta Bedarreta Taberna Adelaida Aldibi.

## Emaitzak

**A taldea**

Abinagraus 2 - Me la Pela 3
Leya 4 - Betrayer 6
Potrosorri 5 - Ojo Avisore 7
DKB 1 - Arrogoi taberna 4
Onanierengн 3 - Irati STS 4
Kaxi Ganamos 0 - Lorategi 1
Totem 16 - Alai Gozokiak 0
Viboras 4 - Aurrera Bolie 4
Etxe Mobel 2 - Baneuko 6
Galartza Kont 4 - Berango Sukald.4

**B taldea**

Okoretegi 2 - Perrahotsa 1
Jotakabau 1 - Argi Ibili 0
Cer Leintz 2 - Ke Oxtias 2
Naranja Mekanika 7 - Ganbelas 3
Pepelus 7 - Insert Coin 3
Los Heredia 4 - Motz 5
Gualtrapas 1 - ZZPPW7 7
Elisabeth 2 - Los Innombrables 6
Hapoel Jamon 2 - Sobred.de txeira 11
Diego Ant. 8 - Los Mosca Gao 3

**D taldea**

Sokoakoak 1 Bukanak 0
Rotor de B. 0 - Lautherbrunen 1
Txeyenex 1 - Iluna Taberna 0
AC Surcos 3 - Orlando Piratas 5
KK Jaurlaritzari 2 - Bedarreta tab. 7
Adelaida Aldibi 6 - Danok Lagun 2
Tronkoteak 0 - Cart. Igamo 1
Hirei 3 - MSM Inge Integral 4
Los Dimy 2 - Nuevo Taberna 12
Borrock Roll 4 - Koka Janiors 5
Anbotoste 0 - Sortu Informatika 1

## Hurrengo partiduak

**19. ihardunaldia**
**Otsailak 22. Larunbata**
**Zaldibar**

| | |
|---|---|
| 8.50 | Motz - Gualtrapas |
| 10.00 | Kinder konpresa - Hapoel Jamon |
| 11.00 | Me la pela - Berango Sukaldeak |
| 12.00 | Okoretegi - Jotakabau |
| 13.00 | Orlando Piratas - KK Jaurlaritzari |
| 14.00 | Betrayer - Potrosorri |
| 15.00 | Los Innombrables - Fosforos |
| 16.00 | Lorategi - Totem |
| 17.00 | Lautherbrunen - Txeyenex |
| 18.00 | Insert Coin - Los Heredia |
| 19.00 | Abinagraus - Leya |

**Iturripe A**

| | |
|---|---|
| 13.00 | Aurrera Bolie - Etxe Mobel |
| 14.00 | MSM Ingen Integral - Los Dimy |
| 15.00 | Ojo Avisore - DKB |
| 16.00 | Ganbelas - Pepelus |

**Iturripe B**

| | |
|---|---|
| 13.00 | Baneuko - Galaretza Konten |
| 14.00 | Sobred. de Txeira - Diego Antonio |
| 15.00 | Nuevo Taberna - Borrock Roll |
| 16.00 | Ke Oxtias - Naranja Mekanika |

**Otsailak 23, igandea**
**Zaldibar**

| | |
|---|---|
| 8.50 | ZZPPW7 - Elisabeth |
| 10.00 | Alai gozokiak - Viboras |
| 11.00 | Perrahotsa - La mosca Gao |
| 12.00 | Bedarreta Taberna - Adelaida Aldibi |
| 13.00 | Cartonajes Igamo - Hirei |

# ARRASATEKO IKASTETXE PUBLIKOAK

## GURE ETORKIZUNA

...Unibertsitate eta lan munduraino




**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**
**Ereduak: "D" eta "B"**

### Eraikuntza berezia

- Araudi eta barne eraketa bereziak
- Ordutegi desberdina (goizez eta arratsaldez)

### Irakaskuntza euskalduna

- Irakaslego euskalduna ("B" eta "D" ereduak)

### Zerbitzu guztiekin

- Garraioa (dohaineko zerbitzua)
- Jangela (subentzionatua, laguntzailearekin)
- Orientazio departamenduak (hezkuntza pertsonalizatua)
  - Tutoreak
  - Orientatzailea
  - Psikologoa

### Aukerako eskaintza zabalena

- Alemana
- Antzerkia
- Bertsolaritza
- Sukaldaritza ingelesez
- Informatika
- Euskal Dantza
- Frantsesa
- Abesbatza
- Matematika tailerra

### Baliabide guztiekin

- Bideo gela
- Informatika gela
- Teknologi gela
- Natur Zientzien laboratегia
- Ikusentzutekoen gela
- Liburutegia

Arrasate INSTITUTUA

**Matrikula epea otsailaren 17tik 28ra arte**

Informazio gehiagorako:
**Institutua: 79 44 47 / 79 20 38**

# NORK ESAN DIZU EZ ZARELA ARRAZISTA?

BADUZU ZER IKUSI ETA ZER IKASI!

## ARRAZAKERIAREN AURKAKO JAIA!!

- **Musika eta dantza**
  *Raices Gitanas*
  *Princes & John (Afrikako musika)*
  *Julio Lantigua (Karibeko erritmoak)*
  *Erne eta Jon (Txalaparta)*
  *Trikitilariak*
- **Pintxoak eta sagardoa ere egongo da**



**AEDko Gazte Taldea**
**Antimilitaristak**
**Askagintza**
**Gaztetxea-AGAKO**
**Musakolako Gazte Txokoa**
**Orkatz Skaut Taldea**
**San Andreseko Gazte Txokoa**
**San Frantzisko Gazte Taldea**
**Sharp**
**SUDC**
**Trikitilariak**

**Otsailaren 23an, domeka**
**Seber Altube Plazan**
**Arratsaldeko 6etatik aurrera**

KAMELAMOS
ADIQUERAR

EZ IKUTU NIRE LAGUNA

ARRASATEKO UDALA

## "El Florido Pensil" antzezlana

# Espainiar gerra osteko bost eskola umeren gorabeherak

Gerra osteko espainiar eskola giroan murgilduaraziko gaitu asteburuko antzerkiak, *El Florido Pensil*ek. Tanttaka Teatroak eskainiko du obra Amaia antzokian eta gainera euskaraz eta erdaraz. Gogoratu behar da Arrasateko Udalak asmo berezi bati eman ziola hasiera Txalo Produkzioak taldearen Xagu Tranpa antzezlanarekin urtarrilaren 17, 18 eta 19an, hain zuzen ere antzerkiari bultzada bat ematea herrian. Horretarako antzerki emanaldiak egun bakar batera ez mugatzea erabaki zuen, eta baita euskaraz nahiz erdaraz eskaintzea. Asmo horri jarraituz, El Florido Pensil bihar euskaraz eta etzi erdaraz ikusi ahal izango da.



**Oso kritika onak jaso ditu Tanttaka taldearen azken antzezlanak.**

**GERRA OSTEKO ESKOLA GIROA**

Tanttaka Teatroak eskainiko duen obra Andres Sopeñaren *El Florido Pensil* antzerkiaren egokitzapena da. Fernando Bernués eta Mireia Gabilondok zuzendu dute eta aktoreak Enrique Diaz de Rada, Zorion Egileor, Mikel Garmendia, Paco Sagarzazu eta Jose Ramon Soroiz dira.

El Florido Pensil antzezlanak eskola ume batzuen gertakizunak kontatzen ditu baina giro berezi batean, gerra osteko eskola giroan eta garai hartako hezkuntza sistema ilogikoaren barruan. Antzezlaneko protagonistak garai hartako erregimenak bere ideiak zabaltzeko erabiltzen zituen eszenatokiak erakutsiko dizkigute, hala nola, eskola, ideologia faszitaren propaganda zabaltzeko gune aproposena, auzoko zinea, irratia, eliza edo hain inofentsiboa zirudien tebeoa.

Esan behar da antzezlaneko bost aktoreak aipatutako garaia bizi izandakoak direla eta horrek errealismo kutsu bat ematen dio obrari.

Antzezlanak ordu bat eta berrogei eta bost minutuko iraupena dauka eta zapatuan gaueko 10.30etan eskainiko da eta igandean arratsaldeko 8etan. Sarrerak 1.000 pta.tan salduko dira, Gazte Txartelarekin 800 pta.tan.










## ODILE IRIART (JOSU ARKAUZEN EMAZTEA)

# "Senarrak heriotza osog

**Urtarrilaren erdialdetik Soto del Realgo espetxean dago Josu Arkauz mondragoetarra. Frantzian espetxe zigorra bete eta gero, polizia espainiarraren esku utzi zuten nahiz eta beraren aurkako kargurik ez egon. Egoera salatzeko 37 egun gose-greban eta beste 7 egarri-greban zeramatzan orduan. Lau egunez komisaldegian eduki zuten. Torturapean, berak eta etxekoak diotenez. Odile Iriartek, emazteak, joan den astean izan zuen lehenengoz aurrez aurre, bis a bis batean.**

**- Senarraren egoera ezlegaltzat jo duzu behin baino gehiagotan...**

- Prozedura osoa ilegala izan da hasiera hasieratik. Josuk 8 urteko gartzela zigorra bete zuen Frantzian, eta ez zegoen inolako estradizio eskaerarik berarentzat. Entrega bat izan da ez expulsio bat.

Orain Soto del Realen daukate, diotenez bere izena agertzen delako pare bat sumariotan, baina ez dago bere aurkako kargurik. Berak ez zuen ezer onartu, ez komisaldegian poliziaren aurrean eta ezta epailearen aurrean ere, baina barrura sartu dute. Atxiloketa politikoa izan da erabat.

Nazioarteko hainbat erakundek ere horrela ikusi du prozesu osoaren ilegaltasuna, harriduraz. Europako Kontseiluaren barruan badago torturaren aurkako komite bat, guztiz ofiziala. Komite horrek 3 urtetik behin bisita egiten du gartzeletara, kasu larrietan. Aspaldi idatzi nien eta Josuren entrega egin zutenean, Madrilera etorri ziren, guardia zibila bisitatu zuten, epailearekin eta forensearekin egon ziren eta baita Josu berarekin ere, eta arrazoia eman digu. Txostena bidali zaio estatuari, eta honek ikusiko du orain publikatu edo ez.



**- Josu torturatu dute?**

- Bai, kolpatu egin dute, mehatxatu, poltsarena egin diote... baina elektrodorik ez. Izan ere, esan dit berehala eta askotan galtzen zuela konortea. Une jakin bate-

> **"Berak ez zuen ezer onartu, ez komisaldegian eta ezta epailearen aurrean ere, baina hala ere barruan sartu dute"**

# gertu ikusi zuen”

an, heriotza gertu ikusi zuela aitortu zidan, polizia oso urduri jarri eta berehala eraman ei zuten ospitalera eta suero poltsa bi sartu; pentsa, begietako estalkia ere kendu zioten eta orduan ikusi zituen aurpegi batzuk, sekula ahaztuko ez dituenak.

Ikaragarri gogorra iruditzen zait hori hilabetetik gora gose greban dagoen batentzat, baina berak entregaren aurrean ez zeukan beste defentsarik eta salatzeko beste modurik.

**- Eta orain nola dago?**

- Fisikoki hobeto, kilo batzuk hartu ditu eta bueltatu zaio kolorea aurpegira. Janaria zaintzen dabil, han barruan zaindu daitekeen neurrian, jakina. Dena den, gartzelako sendagilearen jarrera salatu beharra dago, sartu zenetik bakarrik behin ikusi duelako. Hobeto dagoen arren, oraindik ez du ondo lo egiten eta batzutan burua joan bezala egiten zaio.

Moral aldetik kezkatuta ikusi dut, bere aurkako batere salaketarik ez dagoenez ez dakielako epaileak noiz deituko duen deklaratzera. Gainera kuriosoa da, baina berak esaten du komisaldegian ez ziotela behin ere galdetu gero epaileak aipatu zituen sumarioen gainean. Horregatik ematen du gartzeleratzeko erabaki osoa epailearena izan dela.

**“Ezin da Frantziako gartzelarik goraipatu, baina hemengo espetxeen egoera askoz ere eskasagoa da”**

**- Frantziatik Espainiara ekarri dute. Zer suposatzen du horrek zuretzat?**

- Kilometroak berdinak, baina Frantzian bisitak askoz ere luzeagoak izaten ziren. Gainera, eta ez da Frantziako gartzelak goraipatzeko moduan daudelako, baina hemengo egoera eskasagoa da. Soto del Realgo gartzela bera, berria izanda, ez dago hain txarto, baina barrutik oso zikina da.

Bestalde, lotsagarria iruditzen zait presoak gehienez Euskal Herritik 300 kilometrora dauden gartzeletara ekartzeko plana, horrek ez du ezer esan nahi. Presoek azken 14 hilabeteak borrokan daramatzate, urteak sufritzen... eta ikusten da gizartearen gehiengoa ados dagoela presoak Euskal Herrian egoteko oinarrizko eskubidearekin; politikoak aldiz, politikan geratzen dira, errepresioan.

**- ETAko bigarrena zen Josu?**

- Mezu hori zabaldu nahi izan dute euren portaera justifikatzeko eta Josu kriminalizatzeko. Azken 6 urteetan Josu eurentzat ez da inor izan, eta bapatean, bigarrena. Ez du zentzurik.

**- Asko mugitu zara, abokatu elkarteekin, erakundeetan, prentsaurrekoak emanez...**

- Bai, eta zoritxarrez ez du ezer askotarako balio izan. Beno, zerbaiterako bai, hemendik aurrera ez dituzte presoak hain erraz entregatuko, argi geratu delako neurriaren ilegaltasuna eta jende asko mugitu delako. Zentzu horretan eskerrak eman nahi dizkiet arrasatearrei Josuren alde egin duten guztiagatik. ■

Baster-alde

Jatetxea
Denboraldiko platerak, giro onenean
Galartza auzoa • ARETXABALETA
Tel.: (943) 79 24 58

Altzariak
Diseinua
Apainketa
MARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!
Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

ORTO + LAGUN
ORTOPEDIA
Zugan pentsatuz, laguntzeko prest
• Gaisoak eramateko gruak, komun-alkuak, ohe-artikulatuak.
• Eskumuturreko, belauneko eta orkatilakoak.
• Lunbago eta ziatikarako NEOPRENOzko gerriko elastikoak.
Lagun-Aro-ko errezetak hartzen ditugu.
Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• 92 m²ko pisua salgai Larringain kalean (Malvinas). Tel.: 79 78 08.

• Arrasateko erdialdean apartamentua saltzen da. Berogailu zentrala eta ganbararekin. Tel.: 79 52 93. Eguerdietan edo gauetan.

• Pisu merkea salgai Uriburu kalean. Tel.: 79 88 66.

• Eguzki dorrean 80 m²ko etxebizitza salgai. Oso eguzkitsua da eta erdi jantzita dago. Tel.: 79 23 67.

• Aramaixon pisua salgai. Tel.: (945) 44 50 50.

• Larreako etxeetan etxebizitza salgai. Tel.: 79 36 79.

• San Josepe auzoan 65m²ko etxea salgai. Tel.: 77 08 06.

• Etxebizitza salgai Santamainan. Berogailu zentralaz eta igogailuaz. Tel.: 79 07 72.

• Juan Carlos Guerra plazan etxebizitza salgai. Tel.: 79 41 48.

### 2. Erosi

• Etxea erosi nahi dut Arrasaten. 100 m² ingurukoa. Nahiago igogailua eta berogailua izanez gero. Sarrera eguna negoziagarria. Tel.: 79 01 26.

• Etxe bila nabil, unifamiliarra, adosatua edo txaleta. Alokatzeko edo erosteko. Deba Bailaran edo inguruetan. 130 m² izan behar ditu gutxienez, jardina eta garajea. 76 91 30.

### 3. Errentan emateko

• Alakanteko San Juan hondartzan pisua alokatzen da. Tel.: 79 49 98.

### 5. Etxe konpartituak

• Deustuko ikasle pisu batean gela bat alokatzen da oso prezio onean. Tel.: 79 19 96.

• Logelak alokatzen dira erdialdean dagoen etxe batean. Tel.: 79 87 59. Tere.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• Zarugalde 3an garaje plaza saldu edo alokatzen da. Tel: 79 23 06.


**ETXEBIZITZAK**
1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

**GARAJEAK**
7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

**LOKALAK/ORUBEAK**
12. Saldu
13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

**LANA**
17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

**IRAKASKUNTZA**
20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

**MOTORRA**
23. Saldu
24. Erosi
25. Bestelakoak

**DENETARIK**
26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

**HARREMANAK**
34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak


# 77 05 65

**ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)**

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

• Roneoko etxeetan garaje itxia salgai. Tel.: 79 18 70.

### 9. Errentan emateko

• Lehengo Villa Amparo zenaren tokian garaje itxia alokagai. Tel.: 79 19 62. Gauez.

• Garajea alokatzen da San Andresen. 65 m². Tel.: 79 13 52.

### 10. Errentan hartzeko

• Garaje txiki bat behar dut alokagai Arrasaten. Tel: 79 22 92.

## LOKALAK

### 12. Saldu

• Martxan dagoen negozio salgai. Tel.: 79 00 00.

• Erguin kalean lokala salgai. Tel.: 79 18 70.

### 14. Errentan emateko

• Martxan doan harategia eskuz aldatzen da. Tel: 79 28 01.

• Biltegi bezala erabiltzeko 34 m²ko lokala alokagai. Tel.: 79 20 48.

### 15. Errentan hartzeko

• Biltegi moduan erabiltzeko 100 m²ko lokal baten bila gabiltza. Kamioi bat sartzeko modukoa izan behar du. Tel.: 77 10 50. Jabi.

### 16. Bestelakoak

• Lokal komertziala eskuz aldatzen da, beheko eta lehenengo solairua. Tel.: 79 18 00 / 77 08 97.

• Erdiko kaleko bi solairuko lokal komertziala traspasatu egiten da. Tel.: 78 18 00.

## LANA

### 17. Eskaintzak

• Neska gertu umeak edo pertsonak nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 31 44. Gauez.

• Emakumea gertu orduka etxeko lanak egin edo pintxe bezala lan egiteko. Vicen. Ferrerias kalea, 30-2. solairura hurbildu.

• Emakumea orduka lan egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 23 54.

• Esperientziadun neska etxeko lanak orduka edo egun osoz edo umeak zaintzeko prest. Tel.: 79 31 44.

• Klinika laguntzailea eta gerontologian diplomaduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 34 53.

• Jangelan eta tabernetan esperientzia duen neska lan egiteko gertu. Tel.: 79 73 42.

• Etxeko lanak egin edo aterteak garbitzeko neska gertu. Tel.: 929-47 72 65.

• Arratsaldez umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu nago. Tel.: 79 54 06. Maitane.

• Arratsaldez etxeko lanak egin edo pertsonak zaintzeko gertu. Tel.: 79 07 73.

• Neska euskaldunak etxeko lanak egin edo umeak zainduko lituzke. Tel.: 79 98 96.

• Neska gertu umeak zaintzeko. Tel.: 79 25 52.

• Esperientziadun neska kamarero lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 95 92. Rakel. Gauetan.

• Andra euskalduna umeak edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 79 07 73.

### 18. Eskaerak

Umeak zaintzeko neska behar da. Tel.: 79 90 94.

• AEKko euskaltegirako irakasleak behar dira. Dei egin euskaltegiara. Tel.: 77 03 69.

• 35 eta 55 urte arteko emakumea behar da adineko bikotea zaintzeko. Dei egin 8etatik aurrera. Tel.: 76 51 67.

• Mugitu ezinda dagoen adineko gizon bati laguntza emateko mutil bat behar dugu. Tel.: 79 18 78. Gaueko 10etatik aurrera.

### 19. Bestelakoak

• Lanak makinaz pasatzen ditut. Euskaraz edo gazteleraz. Tel.: 77 11 84.

• Negozioa eskuz aldatzen da. Zuzenbidea: Erdiko kalea 48.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Magisteritzan diplomadunak klase partikularrak ematen ditu. Tel.: 79 35 24.

• OHOko eskola partikularrak ematen ditut. Tel.: 79 68 18. Agurtzane.

• Kimikan lizentziaduna taldeka klase partikularrak emateko gertu. Tel.: 79 42 97.

### 21. Eskaerak

• Matematika irakatsiko didan irakasle partikularra behar dut. Ikasgaiak: algebra, analisia, logika matematikoa eta matematika. Tel.: 79 77 59. Gaueko 10.30etatik aurrera. Fernando.

• Internet-eko klase partikularrak hartuko nituzke. Arratsaldez edo gauez. Tel.: 79 55 04.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Renault 11 salgai. SS-AC. Tel.: 76 08 51.

• Nissan Micra berri-berria salgai. Estreinatu barik dago. Matrikulatua. Tel.: 79 41 65.

• Txorizoak eta abar ebakiteko harategiko makina salgail. Prezioa: 15.000 pta. Tel.: 71 50 72 / 79 81 70.

• BMW R-65 motorra salgai. Txuria, errubera berri berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deituko dizut.

• Suzuki GSX 600 F motorra salgai. Txuri-urdina eta ia berria. Tel.: 79 95 82. Andoni. Ordutegia: 13.15etatik 14.15etara.

• Kawasaki Vulcan 500 motorra salgai. 8.000 km. Egoera ona. Tel.: 76 64 70.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Compact irakurle bi salgai. Tel: 79 76 88. Prezio interesgarria.

• Fruitadenda bateko apalak salgai. Benetako prezioa 1.500.000 pta.ko da baina nik 300.000 pta.tan saltzen ditut. Berri berriak daude. Tel. : 79 37 82.

• 1.05 m.ko ohea koltxoi eta guzti, sekreterra eta mesanotxea salgai. 15.000 pta. Tel.: 79 78 10 / 77 14 04.

• Fibro markako bi berogailu salgai. bakoitzak 20.000 pta.tan. Tel.: 77 07 74.

• Arraza oneko txakur kumeak salgai. Tel.: 74 28 64.

• Josteko makina mueble eta guzti salgai. Tel.: 79 22 92.

• Hammer markako snowboard tabla salgai. 1,38 m, Prezioa: 20.000 pta. Tel.: 79 33 58.

• Dynaster skiak (1,85 m.), eta Marker fijazioak salgai. Prezioa: 18.000 pta. Tel.: 79 33 58.

• Cort Luxe gitarra elektrikoa gehi Zoom 900-S efektu prozesatzailea: Biak, 100.000 pta. Suelto erostekotan: 55.000 pta. bakoitzak. Tel.: 79 16 36. Txus edo Toño.

• Boss Me-5 peldala 45.000 pta. Tel.: 79 95 83. Josu.

• Peavey Combo baxu anplifikatzailea salgai. Prezioa: 60.000 pta. Tel.: 79 16 36. Toño.

• Portaeski eta kotxe gainean jartzeko parrila salgai. Tel.: 79 00 99.

• Ingalaterrara bidaia 170.000 pta.tan. Amaia. Tel.: 79 53 58.

### 27. Erosi

• Ordenagailuendako 14 pulgadako pantaila erosiko nuke. Tel.: (945) 44 50 05.

• Bigarren eskuko seaska bat egoera onean erosiko nuke. Tel: 77 12 36. Deitu gaueko 8.30etatik aurrera.

### 33. Bestelakoak

• Zuk nahi duzun guztia esango dizut Tarota irakurriz. Tel.: 907-43 13 62.

## HARREMANAK

### 37. Denetarik

• Astelehenetik ostiralera Leioara joan behar dut eguerdiko 3etarako eta 8etan bueltatzeko. Nirekin kotxean joateko interesaturik bazaude dei egin 79 48 83 telefonora, gastuak erdibana egingo ditugu.

weru
weru®
Ate + leihoak
ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE

Salterain
PVCko ate eta leihoez gain:
Moketak jartzea,
zoru arinak,
kortxoa,
Louverdrape kortinak,
Kortinoba, textila...

# Esther Saenz de la Cuesta

## AIKE IRRATIZALEEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA



**Bi urte baino ez ditu baina bere gaztetasuna ez da arazo Irratizaleen elkarteko lehendakari izateko. Informatika ikasketak egin zituen eta gaur egun 89 urteko amona bat zaintzen dihardu. *Txexu* kalean, irratian *Dakota* deitzen diote.**

**1. Zein da zure horoskopoa?** Aries.

**2. Sinestuna zara?** Gauzak eragiten dituen zeozertan sinesten dut.

**3. Animalia bihurtzekotan?** Katu.

**4. Zure akats bat/gauza on bat?** Gauzak pentsatu barik egiten eta esaten ditut/Oso zabala naiz jendearekin

**5. Zerk lotsarazten zaitu?** Elkarrizketa honek.

**6. Amets bat?** Gerrarik gabeko mundu bat.

**7. Zer kenduko zenuke mundutik?** Politikoak, gosea, pobrezia...

**8. Gertakizun historiko bat?** Gerrate Karlista.

**9. Nor miresten duzu?** Gurasoak.

**10. Zeri diozu beldurra?** Heriotzari.

**11. Zertaz damutzen zara?** Ezertaz.

**12. Negar egin duzun azken aldia?** Iseba minbiziak jota hil zenean.

**13. Zer falta zaio Arrasateri?** Lanpostuak.

**14. Eta zuri?** Dirua.

**15. Lanbidez aldatzekotan?** Edozein, gaur egun ez dago aukeratzerik.

**16. Arrasateko gustoko toki bat?** Santa Barbarako ahateen txokoa.

**17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori?** Mila gauza.

**18. Zein egunkari irakurtzen duzu?** Gutxitan irakurtzen dut, deprimitu egiten naiz eta.

**19. Gustoko janari bat?** Pasta eta euskal janaria orokorrean.

**20. Liburu on bat?** C. Terry Clineren *La última cacería*.

**21. Filmerik onena/txarrena?** *El silencio de los corderos*/*Los Picapiedra*

**22. Musika talderik onena/txarrena?** Mike Oldfield/*El Fari*.

**23. Telebistako programarik onena/txarrena?** *El tiempo lo dirá*/Maria Teresa Camposen *Día a Día*.

**24. Egin dizuten oparirik politena?** Katutxo bat.

**25. Denbora librea zertan pasatzen duzu?** Motorrean, irratian, irakurtzen eta musika entzuten.

**26. Oporretarako toki bat?** Egipto.

**27. Etxeko lanik gorrotagarriena?** Plantxa.

**28. Gomendio bat?** Ez esan sekula "ur honetatik ez dut edango".

**29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza?** Beste bizitza bategatik.

**30. 200 milioi irabaziz gero?** Bizimodua hobetu eta denbora pasatzeagatik lana egingo nuke.


Plus Ultra taberna
Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 79 20 57

Lore
Lurrindegia
Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikan erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

LOGOPEDIA ZENTRUA ARRASATE
HIZKUNTZ ARAZOAK
HIZKETA ARAZOAK
AHOTS ARAZOAK
IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK
Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE

UGARTE
Industri hornidurak
Arrasate pasealekua
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00
Fax: 793412

ESLu
ileapaindegia
Tel.: 79 37 88 • ARRASATE



Brutal Melody taldeko lagunak gogor aritu ziren.

# Larunbat bero beroa Gaztetxean

A zer nolako kontzertu potentea eskaini ziguten bi talde hauek larunbat gauean herriko Gaztetxean: Brutal Melody eta Koma.

Lehenik herriko talde kañeroena, "Brutal Melody", irten zen. Gaua itzartuz, jendea berpiztuz. Baita berpiztu ere, abiada biziko saioa, batez ere, kontuan harturik abeslariaren ihesaldi sutsuak, bat baino gehiago aho zabalik utziz. Ikuslegoa gustora zegoela igartzen zen.

Ederto aurkeztu zuten "Mundu Faltsua" izenburupean plazaratu duten maketa. Giroa ondo beroturik zegoela bigarren taldea igo zen eskenatokira, " ," ez, "Koma".

Iruñeko laukoteak zuen guztia eman zuen eta baita ikuslegoak ondo erantzun ere. Jendea berotzeko orduan abeslaria ez zen batere moztu. Pena bat da gazte hauen saioa ordubete eskasekoa izatea, nahiz eta gustora geratu.

Eskerrik asko: San Andreseko Gazte txokoko taldeari. Eta adi egon zaitezkete ostiral honetan.

**Eneko Allende**

*Euskaldunak eta Osasuna*

## Alkatxofa edo orburua

Euskal Herriko soloetan ezaguna da XVI. mendetik, eta pixa eragiteko erabiltzen zen. XX. mendearen hasieran frantziar sendagile batzuk, bere sendatzeko gaitasunaren berri eman zutenetik are eta estimatuago izan da, batez ere sukaldaritzan.

Gure ortuetan ondo hasten da landare hau, eta medikuntzan bere hosto zabalak erabiltzen dira. Gaur egun alkatxofak gordinik ere jaten dira toki askotan, olio eta gatz apur batekin; orrialde latzenak, baina, egosita jaten dira.

Osagarri moduan hainbat gaixorekin bukatzeko erabili ohi da barazki hau, gibeleko min eta gaitzetan eragin handia du, beazunari jarioa emateko ona da eta. Garnuki edo urearen kalterako ere ona da, berdin kolesterola eta handitutako esteendako ere. Orburuaren ura, garratza izanda ere, ona da odolaren zirkulazioarentzat, kolesterolari aurre egiteko gaitasuna du eta.

*Euskararen Txokoa*

## Inoiz

Aditzaren onduen doie (adberbiue) eta baiezko/ezezko esaldietan, galderazkoetan eta baldintzazkoetan ebali ohi da. Gutxienez behin, behin edo, noizbait esaten ebalten dogu.

(Hemen, inoiz esan barik,"iños" ahoskatzen dogu).

(Galdera) Inoiz izan zara Afrikan?

- Bai, inoiz izan naiz Marokon.

- Ez, ez naz inoiz izan. (ezezkoetan EZ gehitzen jako)

Baina batzuk azken hori esan beharrean, hauxe diñue: "Ez, inoiz!".

Inoiz izan zara Madrilen? Ez, inoiz. / Ez, sekula. (TXARTO esanda)

Ez ahaztu, ezezkoetan EZ gehitu behar jakola.

Sinonimoak:

Ez, inoiz (ere) ez, behin ere ez, sekula(n) (ere) ez; nehoiz (ere) ez (iparraldean).

Beste aditzondo hauekin be bardin: ezer, inon, inola, inor, inork...

**Karmelo Uribarren eta Joxerra Agirreurreta**

**HIES EKIMENA**
Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

EZKONGAIAK 97

# Herri Irratia
## RADIO POPULAR

### DONOSTIA- OM 1.224

• **MANIQUI-** Mamut merkatalgunea. Oiartzun
Andregaiaren jantzia.

• **AUZMENDI JOSTUNDEGIA-** Donostia
25.000 pezetako erosketa txartela.

• **VALENTIN ARGAZKI BIDEOA** - Errenteria
Argazki kamera, poltsa eta bidaiko argazkien errebelatua.

• **EROSKI BIDAIAK**
Astebeteko bidaia Canariasera.

• **CODORNIU**
Ezkontzarako cava.

• **ALKORTA ZURGINDEGIA-** Donostia
Flex Multielastic koltxoia.

• **JAUREGI JATETXEA** - Hernani
Presidentziako bazkaria edo afaria.

• **AITZBELTZ-** Andoain
Zanussi etxeko mikro-huin labea.

• **ALFONSO ESTALAYO-** Donostia
Jatorrizko grabatua marko eta guzti.

• **NATIONAL NEDERLANDEN.** Donostia

### LOIOLA - FM 99.8

• **BAYON** - Donostia
Andregaiaren jantzia.

• **TAYLOR- HARRODS-** Gasteiz
Senargaiaren jantzia.

• **OSCAR VITORIA BITXITEGIA-** Arrasate
Urrezko eraztunak eta zilarrezko bandeja.

• **IKER HALTZARIAK-** Arrasate
Mahaia, aulkiak eta banketak.

• **CODORNIU**
Ezkontzarako cava.

• **BERRIAK PERTSIANAK-** Eibar
Etxerako osagarrien bilduma

• **OCASO ASEGUROAK-** Eibar, Beasain
Bizi eta etxeko aseguroa.

• **ARKAUZ HALTZARIAK** - Aretxabalaeta
Koltxoia eta xaflazko oinarridun bilduma.

• **KIMETZ ILEAPAINDEGIA-** Azpeitia
Ezkongaien ile apainketak.

**EROSKI BIDAIAK**
Astebeteko bidaia Canariasera.

• **ETXEBERRIA-** Azpeitia
Mahai tresneria, baxera eta kristaleria.

• **LASA JATETXEA** - Bergara
Lau menu dastagarri.

1.997.eko Abenduaren 31a baino lehen ezkontzeko asmotan bazarete, bete orri hau eta bidal ezazue, lehen baitlehen, helbide honetara:

**HERRI IRRATIA-RADIO POPULAR**
Garibai, 19 DONOSTIA
1.849 postakutxatila DONOSTIA

...edota...

**HERRI IRRATIA LOIOLA**
AZPEITIA
26 postakutxatila DONOSTIA

Senargaia (Izen-Deiturak):.......................................................Tel zenb: ...............

Kode:.....................Herria:.............................Helbidea:.........................................................

Andregaia (Izen-Deiturak):.......................................................Tel zenb: ...............

Kode:.....................Herria:.............................Helbidea:.........................................................

Ezkontza eguna (gutxi gorabehera): .........................................................................



Gabon ostetik ari dira Ion Balenziaga eta Elene Alberdi Arrasate Irratian bekario gisa lanean.

# Arrasate Irratiko bi ahots berriak

Elene Alberdi eta Jon Balenziaga dira Arrasate Irratiko bekarioak. Gabon ostetik dabiltza lanean, nahiz eta aurrez kolaboratzaile gisa aritu ziren. Elene Soraluzekoa da eta Jon Zumarragakoa eta biak kazetaritza ikasten ari dira, beraz, ikasketak eta lana batera eramaten dute. Gainera Jon ETBn bekario gisa ere badabil, kirol sailean eta Elene Soraluzen atera nahi den *Pil Pil*ean aldizkariaren sorkuntzan ari da laguntzen. Esan behar da ere Elene Euskadi Irratian ibili zela bekario moduan eta bertan asko ikasi zuela.

Bi gazteak Arrasate Irratiko *Goizoro* magazinean egiten dute lan *Agenda* eta *Merkatu Txikia* egiten, baina laister lan berriak egiten hasiko dira. Jonek magazinerako zuzeneko konexioak egingo ditu kaletik eta Elenek 10-15 minutuko erreportaiak prestatuko ditu kale inkestekin eta elkarrizketekin. Gehigarri horiekin *Goizoro* magazinak bizitasuna irabaziko duela uste dute bi gazteek.

Euren gustoei dagokionez, biek esaten dute gutxien gustatzen zaiena prentsa idatzia dela baina aldi berean esaten dute gaur egun lan munduan dagoen krisiarekin, edozein komunikabidetan lan egiteko prest daudela. Elene eta Jon ekainera arte egongo dira Arrasate Irratian lanean. Orain badakizue goizeroko *Goizoro* magazineko agendako eta *Merkatu Txiki*ko ahotsak zeintzurenak diren.

## Arrasate Irratia FM 107.7

**Egunero**
9.00 Albisteak
9.30 Goizoro magazina
14.30 Bixau orduan

**Astelehena**
22.00 Caravanserai musika saioa.

**Asteartea**
22.00 Euskal Festa.

**Asteazkena**
22.00 KK2A

**Osteguna**
21.00 Adi Egon
22.00 Txerrendantza

**Ostirala**
22.00 KGB informatika saioa

**Larunbata**
9.30 Jailarai umeendako saioa.
11.00 Zoroklasikoak musika klasiko saioa.

## Play Back-aren 2. zatia

Datorren asteartean otsailaren 8an burutu zen Play Back jaialdiaren bigarren zatia eskainiko da Arrasate Telebistan. Jaialdiak 3 orduko iraupena izan zuelako erabaki da ikuskizuna bi zatitan.

## ▪ *ATBko asteko programazioa*

| 21 Ostirala | 24 Astelehena | 25 Asteartea | 26 Asteazkena | 27 Osteguna | 28 Ostirala |
|---|---|---|---|---|---|
| 20/20.30/21.00 **Berriak** | 13.30 **Astebete (Errep.)** | 13.30 **Mondrasport (Errep.)** | 13.30 **Play Back jaialdia (Errep.)** | 13.30 **Gozategiz Blai (Errep.)** | 13.30 **Kukaratxa Motel (errep.)** |
| 21.30 **Astebete** **Gaia: Fagor Elektragailuaken egoera langileen ikuspegitik** **Gonbidatua: Mila Larrañaga, LANKIDEAKeko partaidea** | 20/20.30/21.00 **Berriak** | 20/20.30/21.00 **Berriak** | 20/20.30/21.00 **Berriak** | 19.15etan **Kukaratxa Motel** | 20/20.30/21.00 **Berriak** |
| | 21.30 **Mondrasport** | 21.30 **Play Back jaialdia (2. zatia)** | 21.30 **Gozategiz Blai (Arrasateko emanaldia)** | 20/20.30/21.00 **Berriak** | 21.30 **Astebete** |
| | | | | 21.30 **Kukaratxa Motel** | |




A urtengo AUKEA sarien irabazleetariko bat ekarri dugu gaurkoan argazki zaharraren txokora, Aretxabaletan bizi den Matilde Garai mondragoetarra (argazkian 82 zenbakiarekin).

Matilde 16 urterekin hasi zen atletismoan, 1970. urtean. Argazkian krosean ikusten badugu ere (Mugertza memorialean oso oker ez bagaude), bera 200 eta 400 metroetan moldatzen zen ondoen. Mondragoen, Anoetan eta Atletiko San Sebastian taldeetan ibili zen atleta izan zen 14 urteetan zehar, eta estatuko selekzioko partaide izatera ere iritsi zen.

1984. urtean, 30 zituela, eta berriro Arrasateko taldean zegoela, agur esan zion atletismoari. Ordurako makina bat titulu, Gipuzkoa eta Euskadi mailan, eta oraindik inork gainditu ez dituen hainbat errekor.

*Urtea: 1970. hamarkadan.*
*Argazkia: AUKEA*
*Informazioa: AUKEA.*




**MIREN GARAIren zentru mediku-estetikoak Peeling- gaztetze-tratamendu berria martxan jarri dela jakinarazi nahi dizue.**

Horretaz gain:

- *Gehiegizko pisuaren tratamendua dieta pertsonalizatuekin.*
- *Barize tratamendua.*
- *Zirugia estetikoa (bularren handitze edo txikitzea, liposukzioa, eta abar.)*

**Ramon Aginaga** doktoreak eginak.

Eta, era guztietako tratamendu estetikoak: depilazioa, aurpegiko azalaren garbiketa, eta abar.

**MIREN GARAIREN ESTETIKA ZENTRUA**

Zarugalde kalea, 23.zkia. 2.ezk. • 79 96 90




Volvo


Mercedes


Hyundai

**Hemen zure amets guztiak egon daitezke**




**Zatoz eta bete itzazu!**


Nissan


Mazda


Chrysler

• Ordezko pieza originalak • Salmenta osteko zerbitzua • Finantzaketa zure neurrira • Aseguru desberdinak zure zerbitzura • Autoen alokairuen enpresa eta renting-a • Aukerako 100 autotik gora, marka guztietakoak • 3.000 m² automobilari eskainita

Aldi bi

Zigorrola, 1 • 1 pabilioia • ARRASATE • Tel.: 71 20 02






***SEGURTASUNAREN* ARTEA**

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan:** ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile esklusiboak, aldamenetako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatua, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

**ARTEAREN** ***TEKNOLOGIA***

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektoa. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderrak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhobea eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.

***BERRIKUNTZAREN* ARTEA**

Liluragarria berrikuntzetan eta liluragarria diseinuan. 4 edo 5 ateetan eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea esklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28.
Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

**Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.**
**OPEL VECTRA BERRIA.**
**ARTEA** ***MUGIMENDUAN.***

**OPEL**

**TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)
Zerbitzu Oficiala ARRASATEn

**TAKOLO AUTOAK**

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.